

# SILVAIN POUVREAUEN HIZTEGIAREN ITURRIAK ETA TESTUKRITIKAREN METODOLOGIA

Javier Etxagibel

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

## Abstract<sup>1</sup>

*In the XVII century the French priest Silvain Pouvreau prepared a Basque-French dictionary that never was published. In the entries of his dictionary Pouvreau compiled a great number of referential words and quotes of the Basque writers Leizarraga, Axular, Etxeberri Ziburukoa, Oihenart and Harizmendi. In this work we try to verify those referential testimonies and to uncover the non-referential possible ones concerning to the all sources that Pouvreau could resort to, in order to complete the corpus of the dictionary and in this way to obtain a general perspective of the Pouvreau's lexicography.*

*In the first part of the work we present the methodology utilised: settlement of the analysis time period, the need to consider only in terms of reliability levels the possible found sources due to the restriction of the tools utilised in the research and the fact that the actual Basque corpus in texts and editions that Pouvreau could resort to is larger than that we have at hand nowadays. Considering that the analysis of literature testimonies and the lexicographical ones imply different approaches we study them separately. We classify the possible non-referential literature testimonies in four groups according to their reliability levels from the maximum to the minimum one, taking in account the number of authors that could utilise the same testimony, also we propose several criterions to designate with a certain grade of truthfulness a source in the cases of testimonies of poor reliability levels. With respect to possible lexical sources we confront the Basque-French dictionary of Voltaire —that apart from the little word lists that appear in the texts of Leizarraga and Oihenart it is the only Basque-French dictionary published in the analysis time period—with the Pouvreau's one and like in the case of the literature testimonies also propose several criterions to attribute possible sources to these possible lexical testimonies.*

*The main results of the research are the following: i) the literature corpus is formed by about 3700 testimonies of what nearly 60% corresponds to non-referential possibles ones. ii) regarding the sources of these no referential testimonies we find that so many could cor-*

---

<sup>1</sup> Lan hau J. Lakarra eta B. Urgellen zuzendaritzapean 2008an Euskal Linguistika eta Filologiako Doktoregorako Ikerketa Gaitasun Probarako aurkeztutako ikerlanaren bertsio zuzendu eta osatua da. Nire esker ona Joseba eta Blancari beren aholku, zuzenketa eta iradokizunengatik. Jakina, eurak ez dira lanean iradokitzen ditudan hipotesien, ematen ditudan datuen, egiten ditudan baieztatpenen eta egin ahal izan ditudan hutsegiteen erantzule.

respond to the previously quoted sources, i.e. Axular, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Oihenart and Harizmendi, besides that, a great number could correspond to new sources: Haranburu, Materre, Etxepare, Beriain, Tartas and Argainaratz. iii) unexpectedly Voltaire appears as the main lexical source, in effect, more than 700 entries and subentries of the Pouvreau's dictionary could correspond to the Voltaire's one.

The remainder parts of the work are dedicated to present in detail the analysis of the individual sources including tables that compile all the testimonies and also some commentaries about the possible editions of the texts utilised by Pouvreau and others.

## 0. Sarrera

xvii. mendera arte ezin da hitzegin benetako euskal hiztegi tradizio batez. Izan ere, euskal lexikografiaren historian halako tamaina duen lehendabiziko hiztegia Landucciok 1562an idatzi zuena da; halaber, xvi. mendekoa da Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren amaierako *Çvberoaco Herrian Vsançatan ezitraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac* izenburua duen lehenbiziko euskalki hitz zerrenda in-primatua. Berriz, xvii. mendean Ipar Euskal Herrian euskal literaturak izan zuen loraldiarekin batera, euskal lexikografiak ere gorakada handia izan zuen. Kronologikoki, lehenbiziko hiztegia Voltoirerena da. Izan ere, *L'Interpect*-en ~1620ko edizioan eta *Tresora Hirorv Lengvaeitaqua...* izenburua izan arren, aurrekoaren edukia berbera duen 1642koan, «Spece De Grammaire» atalaren barruan «Dictionaire Alphabetiq depuis lettre A. jusques à lettre V.» izenburudun frantsesa-euskara hiztegi bat agertzen da.

Pouvreau eta Oihenarti esker dakigu Etxeberri Ziburukoak xvii. mendeko lehen erdian euskara-latina (?) hiztegi bat idatzi zuela, argitaratu gabe gelditu, eta gaur egun galdutzat jo daitekeena. Bigarren erdian, 1655ean inguru Fr. Dominique de Bidegaray frantziskotarra hogeit beranduago bukatuko zuen euskara-frantsesa-latina hiztegi bat —egun galdua, orobat— hasi zen lantzen. xvii. mendeko hiztegi galduen zerrendari gehitu behar zaio Jaques de Bélak 1660-66 tartean idatzi zuena.

Silvain Pouvreau, Bourgesko elizbarrutitik Lapurdira joandako apaiz euskaldun berriak, zenbait erlijio idazlan euskaratuz gain euskara-frantsesa amaitu gabe gelditu zen hiztegi bat landu zuen 1659-66 tartean inguru. Hiztegia argitaratu gabe da oraindik, baina, behintzat, bere eskuizkribuak Parisko «Bibliothèque National»-ean gordezen dira, «fonds celte et basque» delako sailean 7. eta 8. zenbakiekin.

Hiztegi galduak alde batera utziz, guri heldu zaigun xvii. mendeko euskal hiztegi-gintzaren lekuko baliotsuena Pouvrearena da, zeren Voltoirenarekin alderatuz, bai tamainaz, bai edukiz, eta baita eraginagatik ere askoz garrantzitsuago baita. Hau honela izan arren, hiztegia oharkabe geratu bide zen xix. mendera arte. Mende honetan, Humboldték eta zenbait lexikografo euskaldunek, hala nola, Duvoisinek, Aizkibelek, Harrietek, Azkuek eta Lhandek usu erabili zuten. Nolanahi ere, Pouvrearen hiztegiaren gainean benetako azterketak xx. mendera arte atzeratu ziren hiru alderditan fokalizatuz: iturrietan, hiztegi-gintzan eta hiztegi-gintzan bertan.

Iturrieci dagokienez, 1909an Vinsonek (1909: 161-163) eta Urquijok (1909: 504-519) ia batera erakutsi zuten hiztegi-gintzaren hainbat sarrera eta azpisarreratan agertzen ziren A, E, L, O laburdurak, hurrenez hurren, Axularri, Etxeberri Ziburukoari, Leizarragari, eta Oihenarti zegozkiela. Hurrengo urtean, Vinsonek (1910: 141) agertu

zuen H laburdura, Haranbururen *Debocono escuarra* liburuaren gainean Harizmendik egindako moldaketatik ateratako lekukotasunei zegokiela. Ondoren, mendearen azken hamarkadan M. J. Kerejetak (1991: 861-879) H laburduradun lekukotasun bat Harizmendiren *Ama Virginaren Officioa* liburutik ateratakoa zela erakutsi zuen.

Pouvreuren hiztegitzinta aztertu zuen lehenengoa K. Mitxelena (1960: 74) izan zen 1960an. Bere iritziz, Pouvreau, autoritate hiztegi bat idatzi zuen. Ostera, J. Lakarrak (1995) erakutsi zuen Pouvreauk bere garaiko hainbat hiztegitzinta bezala, hiztegi etimologiko bat egitera mugatu zela, alegia, Oudin edota hiztegitzinta alemaniarren eredu berari jarraitu ziola.

Hiztegiari berari dagokionez, G. Bilbaok (1992) azaleratu zuen Parisko «BN-ko fonds celte et basque»-ko 8. eskuizkribuaren barruan euskara-frantsesa-gaztelania-latina hiztegi laukoitzaren saioa gordetzen zela eta, hortaz, ondorioztatu zuen Pouvreuren benetako asmoa hiztegi laukoitza egitea izan zela. Lan horien bitartez, Pouvreuren hiztegiaren ikerketan aurreratzea lortu bazen ere, oraindik alderdi asko geratzen ziren ukitu gabe, dagoeneko 1994an J. Lakarrak azpimarratu zuen bezala:

ikerketa oso atzera dugu: monografia on bat falta zaigu, egituraz, bi eskuizkribuen arteko diferentziaz, hauen eta hiztegi laukoitzaren saio laburra, erdarazko iturriez, ereduaz, ... hiztegiaren beraren edizioaz landa (Lakarra 1994: 58).

Gogoeta horien harira ulertu behar da Pouvreuren hiztegitzintzaren ereduaz gogoeta aipatu dugun J. Lakarraren lana, bai eta, 2003an M. J. Kerejetaren hiztegiaren edizio faktizio amaitugabea ere. Kerejetaren edizio hori izan da, hain zuzen ere, bulkatu gaituena lan hau gauzatzen saiatzera. Izan ere, bere ediziozko zenbait ohar-txotan erreferentziarik ez duten literatur lekukotasun batzuk ageriko iturri zenbaiti, hala nola, Axularri, Etxeberri, eta Leizarragari legezkiekeela markatu zuen. Aurrekari horiek aintzakotzat hartuz, gure asmoa hiztegiaren euskal iturrien auzia askatzen saiatzea da, zehaztuz zein hedadurataraino zabaltzen diren hiztegiaren erreferentziarik gabeko literatur edota hiztegi lekukotasunak, eta haietaz, eta erreferentziadun osatutako corpusaren azterketaren bidez Pouvreuren hiztegiaren gainean ahalik eta argi-bide gehien lortzea.

## 1. Ikerketaren aitzinekoak

### 1.1. Silvain Pouvreuren bizitza eta idazlanak

Oso gutxi ezagutzen dugu Pouvreuren bizitzari buruz. Alde batetik, berak emandako datuak: *Philotea* liburuan Alexandro VII Aitasainduari egin zion eskaintzan bere burua «Silvanvs Povvrea, Presbyter Bituricensis» bezala agertzen du. Eskaintza berean Pouvreauk berak azaltzen du apaiztu eta berehala ikasi behar izan zuela euskara: «ayant en besoin, aussitôt après mon ordination sacerdotale de savoir par experience la peine qu'il y a à apprendre la langue basque» (Dubarat 1908: 104).

Pouvreuren adierazpen horretan, eta, beherago ikusiko dugun Haranederren esanetan oinarrituz, Vinsonek kalkulatu zuen Pouvreauk euskara ikasi zuenean izan zezakeen gutxi gorabeherako adina: «Comme il dit lui-même dans cette adresse qu'il fut amené à apprendre le basque aussitôt après avoir reçu les ordres sacrés, il avait donc environ 26 ans en 1639» (Vinson 1910: 139).

Berriz, orain arte oharkabe geratu den datua agertzen da *Iesusen Imitacionea*-ren eskuizkribuaren azken orrialdean. Izan ere, liburua Axularren aipu batekin bukatzen da, eta ondoren «Mr. Pouureau a S. Victor». Dirudienez, «S. Victor» hori Pouvreuren garaian ospetsuak ziren Parisko zein Marsellako abadie legokieke, baina, baita «Mont Luçon»-etik hurbil dagoen herrixkari ere, eta herrixka hori antzina Bourgeseko eliz barrutiari zegokion, hain zuzen. Horregatik, oso interesgarria iruditzen zaigu «S. Victor» datu hori aztertzea, Pouvreuren bizitzari buruz argitasunen bat ematen digun ikusteko.

Zeharka bada ere, ondoko datuak ezagutzen dira: Haranederrek (Pouvreuren *Gudu Espirituala* itzulpenari buruz) honela idatzi zuen:

Eguia da bada, Diocesa huntaco Jaun Aphezpicu cen batequin Parisco partetaria Bayonarat ethorri içan cen Jaun Aphez batec, Escaldunei cerbitçu errendatu nahiz, Escara ahal çaquien beçala ikhassiric, Liburu hau eta berce cembait ere Escarat itçuli içan cituela, eta Parissen imprima araci (Vinson 1891: 115).

Vinsonek iradokitzen du Fouquet izan zela Haranederrek aipatutako apezpikua. Dubaretek Pouvreau Bidarteko erretore aritu zela 1642an aurkitu zuen, baita bere kabuz —noiz ez dakigun arren— Urbano VIII Aitasainduari bere uko egiteko eskaera aurkeztu ziola ere, eta honek onartu egin ziola 1644ko maiatzean (Dubarat 1908: 106-108). Ondoren, J. B. Daranatzek Vaticanoko agiritegian aurkitu zuen Pouvreuren ukoaren onarpenaren jatorrizko agiria: «nostro Papa Urbano octavo concessa de ecclesia parrochiali Sanctae Mariae de Bidart par resignationem magistri Sylvani Pouvreau» (Daranatz 1910: 211).

Nahiz eta Bidarteko erretore izateari utzi, Pouvreau agertzen da berriro Bidarten 1654an. Izan ere, Danaratzek Bidarteko elizako agiritegian aurkitu zituen agiriei buruz honela dio: «On voit que en août, septembre et Octobre 1654 S. P. procède à quatre baptêmes, dans l'église de Bidart» (Daranatz 1912: 200).

Ez du ematen Pouvreau geroztik beste eliza baten «curé» izan zenik, zeren 1644tik aurrerantzean berak izenpetutako agirietan «Silvain Pouureau pb» agertzen baita. Ez dakigu, bada, euskal itzulpenak jarduteaz gain, zein izan ote zen bere lanbidea.

Aurrekoetz landako, gainerako zertzelada guztiak badaezpadaoak dira.<sup>2</sup> Ondorioz, gaur egun, Pouvreuren irudiak iluna izaten jarraitzen du. Nolabait esateko, bere inguruan isiltasuna zabaltzen da. Antza denez, bere garaiko euskal literaturaren «intelligentsia»rako arrotza izan zen, are gehiago, Parisek inposatutako gorputz arrotz bat. Bere idazlanetan<sup>3</sup> ez da aurkitzen halakoetan ohikoak ziren laudorio arrastorik,

<sup>2</sup> Esate baterako, Dubarat eta Daranatz ustez Pouvreau St. Cyranen morroi eta idazkari izan zen, eta honen etxean ikasi omen zuen euskara (Daranatz 1910: 206-216, 1929: 96-101).

<sup>3</sup> Pouvreauk hiru liburu euskaratu eta argitaratu zituen: 1656an Richelieu Kardinalaren *Gviristinoaren Dotrina*, 1664an Saleseko Frantziskoren *Philotea* eta 1665ean Scupoliren *Gvdu espirituala*. Hiru liburu inprimatu horiez gain, eta Vinsonen arabera (1891: 117), Parisko Bibliothèque Nationaleko «fonds celte et basque» delakoan 7, 8, 9 zenbakiak duten eskuizkribuak Pouvreauk argitaratu gabe utzi zituen hainbati dagozkie: 7. eskuizkribua «Dictionnaire basque-français»-ari dagokio. 8. eskuizkribuan biltzen dira «Gramaire basque» delako atal batzuk, Oihenarten oharak, «Dictionnaire»-ko kopia osagabe bat, «Dictionnaire basque, français, espagnol, latin» atal batzuk, *Andre Dona Maria Privilegiatua* izenburua duen itzulpena De Priezac-en «Privileges de la V. mère de D». frantsesezko orijinalarekin batera, eta beste batzuk. 9. eskuizkribua Kempisen *Imitationea*-ren itzulpenari dagokio. Eskuizkribu hori xx. mendearen hasieran Vinsonek berak argitaratu zuen. Berriz, 1979an Satrustegik Vinsonen edizioa berrargitaratu zuen.

hala nola, Argainaratzek Etxeberriren *Noelac*-ean autoreari egindakoa, edo Harizmendik Haranbururi egokitua, etab., aitzitik, hoztasuna nabari da beherago ikusiko dugunez. Oihenartek berak eskatu zion laguntza —beharturik?— adeitasunez eman zion, baina, ez dugu aurkitzen berarengan Pouvreurekiko inolako iruzkinik, ez laudoriozkorik, ez kontrakorik.

## 1.2. Pouvreuren hiztegiak

Pouvreuren asmoa eskuizkribaturik gelditu ziren bere lanak argitaratzea zela argi ikusten da, berak idatzitako testu batean. Izan ere, 8. eskuizkribuaren edukia azaltzerakoan ondokoa dio Vinsonek:

A la place du ft 245 se trouve une feuille de parchemin contenant le projet d'un Privilège du Roy» pour l'impression de la Grammaire, «avec quelques dialogues familiers», du Dictionnaire et de l'Imitation de Jésus-Christ en basque (Vinson 1891: 117).

Nola otu zitzaion Pouvreuri hiztegi bat egitea, eta noiz hasi ote zen hiztegia lantzen erantzuten zuzen ez dakigu. Hala ere, badira zenbait zantzu halako hurbilketa egiteko. Fr. Dominicus de Bidegaray, Baionako frantziskotarren komentuko Filosofia irakakaslea, eta Petrus Hirigoitz, Bidarteko erretorea, agertzen dira *Gviristinoaren Dotrina*-ren eliza-onesle gisa eta Bidegaray bera *Philotea*-ren eliza-onesleatarikoa izan zen (Vinson 1891: 97; 107-108). Pouvreauk biak ezagutu zituela ia ziurtzat jo genezake, kontuan hartuz, gorago ikusi dugunez, Bidartera itzuli zela 1654an, ziurrenik, bere lehenengo itzulpenarako aprobazioen bila.

Badakigu xvii. mendeko bigarren erdian Pabeko komentu batean, D. Bidegaray deituriko frantziskotar bat bizi izan zela (Oyharçabal 1989: 64). Bidegaray, euskara, frantses, latina hiztegi baten egileak, 1675-1679 tartean bere hiztegia argitaratzeko hiru aldiz eskatu zien laguntza Behe Nafarreko Gorteei. Honela agertzen da 1675eko Abuztuaren 22an egindako lehenengo eskaera: «Elle nous dit que ce religieux avait travaillé pendant 20 ans à composer un Dictionnaire trilingue, basque, français et latin» (Dubarat 1914: 6). Horren arabera, Bidegaray 1655ean inguru hasi zatekeen bere hiztegia lantzen.

Ematen du Bidegaray hiztegitilea, eta Bidegaray Pouvreuren itzulpenen eliza-oneslea, pertsona bera direla. Horregatik, litekeena da Pouvreauk Bidegarayrengandik jakitea hiztegiarena, eta bera ere horrelakoa egiteko gai zela pentsatuz, lanari ekitea, dagoeneko *Gviristinoaren Dotrina*-rako bilduak zituen lekukotasunak, hitzak, etab. erabiliaz. Vinsonen arabera, «fonds cèlte et basque»-ko 7.ri dagokion Rouenen gordezten zen kopia batean aipatzen dira 1659 hiztegiaren hasierako urte bezala, eta 1661 bukaerako urtea. Bestetik, 8. eskuizkribuaren hiztegiaren azken orrialdean 16.8.1663 data agertzen da.

Ondorioz, baliteke Pouvreau 1655-1659 tartean hiztegiaren antolakuntzan hastea. Amaierako urteari dagokionez, esan daiteke Pouvreauk hiztegia osatugabe utzi zuela. Izan ere, Kerejetaren ustez (1991: 865), 1665 urtearen erdi aldetik aurrera, Pouvreauk ez zion ezer erantsi bere hiztegiari.

---

Gure lanaren garapenerako interesgarritzat jo dugu Vinsonen bibliografia erreferentziak eta zenbait ohar biltzea (ik. banakako iturriei eskainitako ataletan dagozkien eranskinak).

Hala ere, badira hiztegia lantzeari uzteko data beranduago jartzeko zantzuak:

- Pouvreauk bere hiztegian, *Iesusen Imitacionea*-tik ateratako aipu txiki eta hitz asko sartu zituen (Etxagibel 2010). Dakigunez, Pouvreauk *Philotean* Alejandro VII Aitasainduari egindako eskaintzan baieztatu zuen dagoeneko *Iesusen Imitacionea* itzulia zuela. Kontuan hartuz, *Philotea* 1664. urtean argitaratu zela, lehen begiradan ematen du urte horretarako bukatua zuela itzulpena, baina Vinsonen arabera (1891: 108, 111-112) ez dago argi eskaintza hori jatorrizko edizioan zenik, eta baliteke 1665-1667 tartean erantsia izatea: hau da, *Iesusen Imitacionea* 1665-1667 tartean bukatu ahal izan zuen.
- Pouvreauk *Les Proverbes basques*-en 1664?, 1667? argitalpenari dagokion Baionako alea ezagunaren aztarnak dira. Izan ere, edizio horretan soilik agertzen diren bi termino sartu zituen bere hiztegian (Etxagibel 2010).

Horrenbestez, baliteke hiztegia lantzeari uzteko data 1665-1667 tartean izatea.

### 1.3. Pouvreuren hiztegiari buruzko azterketak

Sarreran aurreratu dugunez, orain arte egindako azterketa garrantzitsuenek hiru alderdi aztertzeraz bideratu dira: Pouvreuren literatur iturriak zein izan ziren, hiztegiaren eskuizkribuei buruzkoak, eta Pouvreuren hizteggintza aztertzen dutenak:

#### A) Pouvreuren iturriei buruzkoak

Pouvreuren hiztegi hainbat sarrera eta azpisarreratan laburdura batzuk agertzen dira: A, B, E, H, L, O, S, eta S.M. Vinson (1909: 161-163) eta Urquijo (1909: 504-519) izan ziren, ia batera, lehenbiziko aldiz aztertu zituztenak laburdurak. Biek erakutsi zuten A, E, L, eta O, hurrenez hurren, Axularri, Etxeberriri, Leizarragari, eta Oihenarti zegozkiela. Vinsonek B, S, eta S. M. laburduen buruz ez zuen ezer aipatu, eta H-ri dagokionez bere ezintasuna azaldu zuen. Ostera, Urquijok uste zuen H Harizmendiri zegokiola, eta B, M, S, Beriaini, Materreri eta Sauguisi legozkiekeela, hurrenez hurren.

Ikerketa horien ondoren, Vinsonek erakutsi zuen H. zuten zenbait termino eta aipu 1660an inguru Harizmendik moldaturiko Haranbururen *Debocino escuarra*-ren ediziotik atereak zirela (Vinson 1910: 141).

K. Mitxelena izan zen gainerako laburduren auzia askatu zuena; erakutsi zuenez, B, L, S, eta S.M. Oihenartek *Les Proverbes basques* liburuko hiztegitxoan Iparraldeko probintziak izendatzeko erabili zituen laburdurak berberak ziren, alegia, B: Basse Nauarre; L: Labourt; S: Soule; eta S.M.: Soule Meridionale (Mitxelena 1961: 7).

Azkenik, M. J. Kerejetak aurkitu zuen H laburduraren azpian Harizmendik moldaturiko Haranbururen *Debocino escuarra*-ren edizioaz gain Harizmendiren beraren *Ama Virginaren Officioac*-en edizioa ere bazela (Kerejeta 1991: 865).

#### B) Hiztegi eskuizkribuei buruzkoak

G. Bilbaok erakutsi zuen hiztegi 8. eskuizkribuaren barruan hiztegi laukoitz baten saioa zela:

[..] izan ere hiztegiaren hirugarren eskuizkribu bat bait dago Parisen beste biekin batera. Artikulu honetan erakutsi asmo dugunez Silvain Pouvreauk beste biak baino beranduago idatzia da hirugarren eskuizkribu hau, ziurrenik 1665.eko maiatzak 12.a eta abuztua bitartean idatzia hain zuzen ere, orain arte aipatzen zirenetako bat (BNP 7 alegia) kopiatu, osatu eta egokitzen du, eta Pouvreuren asmoa hiztegi laukoitza, hots, euskara-frantsesa-gaztelania-latina idatzi eta argitaratzea zela erakusten du (Bilbao 1992: 341).

Kerejetak Pouvreuren hiztegiaren edizioa burutu zuen 2003an.<sup>4</sup>

### C) *Pouvreuren hiztegitzinta*

Mitxelenaren ustez, Pouvreurena autoritate hiztegia zen:

En la Biblioteca Nacional de París se conservan, aparte de otros manuscritos, dos copias de un magnífico diccionario vasco-francés que desgraciadamente sigue inédito si bien es verdad que ha sido profusamente aprovechado por los lexicógrafos posteriores desde Humboldt, para componer el cual estudió Pouvreau detenidamente las obras impresas de varios autores vascos (Leizarraga, Axular, Harizmendi, Etcheberri, pero no Dechepare) y contó entre sus informadores a Oihenart (Mitxelena 1960: 69).

Ostera, Lakarrak Pouvreuren joera sortzailea kuantifikatzearen eta behin behinoko hurbilketa gisa Pouvreuren hiztegi A eta B letretan lehen hamar orrialdeetako eratorri eta konposatuak zenbatu zituen, Pouvreau baino lehen inoiz erabili gabeko eratorri eta konposatu berrien ehunekoa neurtuz *Hauta-lanerako euskal hiztegia*-ren laguntzaz. Emaizak ondokoak dira:

A letrako eratorri eta konposatu berrien ehunekoa: 68.

B letrakoen ehunekoa: 67 (Lakarra 1995: 18-20).

Horrezaz gain, aldarrikatu zuen Pouvreau biltzailea baino sortzaileago izan zela, ezinbestean, bere garaiko hiztegitzaileen erduei jarraitu zitzaielako:

Pouvreuren hiztegi-ariketa berrikusi dugu, bertan aurreko ikerketak bereziki ukitu (eta goraiatu) aitzineko egileen testuetatik bilketa —lehen euskal autoritate hiztegia bailitza— gutxiena eta egilearen sorkuntza gehiena (%65-70 eratorri eta konposatuetan) markatuaz; hiztegi(eta)ko lexiko berrikuntza bat datorrela bere obretakoarekin, ez halabeharrez, gainerako beteginzarreak barkakizun egiten duen bekatu arin gisa; honenbestez, ezin harritu beste hiztegitzaile askok bezala, hiztegiaren hitzaurrean azaltzea, hain zuzen, euskarazko eratorriak nola sor daitezkeen. Zor berezirik izatekotan Kerejetak (1991) lehenengoz erakutsi legez, Oudinekin duela ere ikusi dugu haren hiztegian aurkitu baitzuen ez honako edo harako hitzaren azalpena edota adibidearen eredia, baizik eta oinarri ezagunetarik gramatikaren baliabideez eratorri berriak sortzeko ohitura. Europa osoan mendeetan zehar aieruz eta hainbatetan aipatuki eriden genezakeen gramatikaren hiztegiareriko lehenatasuna (Lakarra 1995: 46).

<sup>4</sup> Kerejetak edizio faktizioa burutu zuen, 7 eta 8. eskuizkribuetan agertzen ziren sarrera guztiak bilduz.

#### 1.4. Lanaren helburua

Dagoeneko 1994an Lakarrak ohartu zuenez Pouvreauren hiztegiari buruzko azterketak oso atzeratuak dira (ik. § 0.). Iturriei dagokienez, Vinson, Urquijo eta Kerejetaren lanen ondoren lurdike dena argitua geratu dela. Hala ere, Kerejetak hiztegiaren gainean prestatutako edizioan zenbait ohartxotan Pouvreauren iturri ezagunei legokiekeen erreferentziarik gabeko literatur lekukotasun zenbait aipatzen ditu. Aurrekari hauek kontuan hartuz, gure lanaren helburua izan da, Kerejetak hasitako bideari jarraituz, S. Pouvreauk erabilitako ahalik eta erreferentziarik gabeko lekukotasun gehien azaleratzea, eta haiekin, eta erreferentziadunekin osatutako corpusaren ikerketaren bitartez, Pouvreauren hiztegiaren ezagutzan sakontzea.

## 2. Ikerketaren Metodologia

### 2.1. Ikerketaren lanabesak

Pouvreauren hiztegiko ikerketa burutzeko Kerejetak prestatutako edizioaz baliatu gara (ik. § 1.3.). Hiztegiko lekukotasunak erkatzeko erabili dugun lanabesik nagusia [www.armiarma.com](http://www.armiarma.com) delako Klasikoen gordailuaren «Corpus Arakatzaila» programa izan da. Izan ere, tresna eraginkor eta arina izan da lekukotasunak egiaztatzeko, kontuan hartuz, behin baino gehiagotan Pouvreauk bere erara moldatu zituela parafraziaren bidez.

Corpus Arakatzailako testuen grafiak gaurkotuak dira, baina, gure azterketarako jatorrizko grafiak berreskuratzea funtsezkotzat hartu dugunez ondoko jatorrizko edizioak baliatu ditugu:

#### A) *Corpus Arakatzailako on-line-koak:*

Materre —*Doctrina Christiana*— 1623.

Beriain —*Tratacen da nola ençun vearden Meza*— 1621.

Etxeberri Ziburukoa —*Manual Devotionezcoa*— 1669.

Etxeberri Ziburukoa —*Noelac*— 1697.

Haranburu —*Debocino escuarra*— 1635.

Etxeberri Ziburukoa —*Eliçara erabiltceco liburua*— 1665.

Axular —*Gero*— 1643.

Pouvreau —*Gviristinoaren Doctrina*— 1656.

Pouvreau —*Philotea*— 1664.

Pouvreau —*Gvdu Espirituala*— 1665.

#### B) *Faksimilak:*

Ettxepare —*Linguae Vasconum Primitiae*— 1545.

Leizarraga —*Testamentu Berria, Kalendreru, ABC*— 1571.

Beriain —*Doctrina Christioaren Euscaras*— 1626.

Haranburu / Harizmendi —*Debocino escuarra*— 1690.

Axular —*Gvero*— 1643.

Oihenart —*Notitia*— 1656.

Oihenart —*Les Proverbes Basques*— 1657, 1664-67.

Tartas —*Onsa hilceco bidia*— 1666.



C) *Vinsonek argitaratutako testuak:*Harizmendi —*Ama Virginaren Officioac*— 1660.Argainaratz —*Devoten Breviarioa*— 1665.Pouvreau —*Iesusen Imitacionea*— arg. gabe.

Pouvreauk zein edizio erabili ote zituen zehaztu asmotan Vinsonen *Essai d'une bibliographie de la langue basque* erabili dugu. Horietaz gain, begiraturako hiztegi eta testuen artean dira OEH, J. Lakarrak 1997an prestatu zuen Voltoireren *L'Interprect-en* edizioa, eta Orpustanen 1993ko argitaratutako *Oihenarten hiztegia*.<sup>5</sup>

## 2.2. Ikerketaren parametroak

A) *Azterketaren denbora tartea*

Lehen-lehenik, azterketaren denboraren parametroa finkatu behar izan dugu. Kontuan hartuz, hiztegiaren amaierako data 1665-1667 tartean izan zitekeela (ik. § 1.2.) azterketaren denbora tartea 1545-1666 artean finkatu dugu, alegia, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* eta Tartasen *Onsa hilceco bidia* edizioen artean doan tartean.<sup>6</sup>

B) *Lekukotasunen fidagarritasun maila*

Lekukotasun corpusaren eraketa bi eragilek zailtzen dute:

— *Euskal literaturaren corpusaren mugak*

Izan ere, ezagutzen ditugun liburuez gain, Pouvreauk gaur egun desagertutako zenbait idazlan ezagut zezakeen edo besteren bitartez horrelakorik ezagutzera iritsi: alde batetik, Oihenartek bere *L'art poetique basque*-n aipatzen dituen Etxepareren edizio galdua, Etchegarayren *Arzain gorria* pastorala, de Lograsen poesiak eta Etxeberriren *Eguneroscoa* eta hiztegi galdua (Oihenart 1665: 37-39).

Gainera, Vinsonek bere *Bibliographie de la langue basque* dagoeneko XIX. mendean ezagutzen ez ziren idazlan edo idazlanen argitalpen zenbaiten berri eman zigun:

2. erreferentzia duen Sancius de Elsoren *Doctrina Christiana* 1561 urtean Adrianum de Ambersek Pompilonen argitaratua. (Vinson 1891: 5)

11. a, 11. c. erreferentzia duten Materreren *Dotrina Christiana* liburuaren 1617ko eta 1648ko argitalpenak. (Vinson 1891: 50)

21. erreferentzia duen Argainaratz *Avisu eta Exortacionea...* 1641ean Milangesek Bordelen argitaratua. (Vinson 1891: 84)

<sup>5</sup> Aipaturako lanabesei erantsi behar zaizkie Ikerketa Gaitasun Probarako aurkeztu jatorrizko ikerlana burutu ondoren eskuratu genituen ondoko edizio elektronikoak: Pouvreuren hiztegiaren 7. eta 8. eskuizkribuenarena, Voltoireren hiztegiaren 1642ko edizioarena, Oudinen *Le tresor de deux langues espagnolle et françoise* 1625eko edizioaren eta *Refranes o proverbios españoles traducidos en lengua francesa*-ren 1659ko edizioarena.

<sup>6</sup> Gorago adierazi dugunez baliteke Pouvreauk bere hiztegia lantzen uzteko data 1667an izatea (Ik. § I.1.2). Kontuan hartuz kronologikoki 1666an argitaratutako *Onsa*-ren hurrengo liburua 1672an argitaratu zela —Tartas-en *Arima penitentearen occupatione deuotaq*, hain zuzen— azterketa denbora tartea 1545-1666 artean finkatu dugu.

**16. b** eta **16. c** erreferentzia duten Haranbururen *Debocino escurra*-ren 1642ko eta 1660ko argitalpenak. (Vinson 1891: 72-73, 540-541)

Horietaz gain, badakigu guri heldu zaigun zenbait argitalpen ez direla osoak edota berreginak direla hala nola *Refranes y Sentencias*,<sup>7</sup> Argainaratzen *Devoten Breviarioa*, edo Harizmendiren *Ama Virginaren officioac*.

— *Azterketan erabilitako lanabesen mugak*

Izan ere, Corpus Arakatzaila eta *OEH*-ren datu baseetan ez dira biltzen gure ikerketan inplikatuak diren autoreen testu edota edizio ezagun guztiak (ik. § 2.1). Horitik, erreferentziarik gabeko lekukotasunak egiaztatzerakoan agertzen den zailtasuna eta soilik fidagarritasun mailaren terminoetan mintzatu beharra.

### 2.3. Iturrien azterketan erabilitako metodologiak

Gorago adierazi dugunez (ik. § 1.4.), gure azterketa hiztegi eta literatur iturrietan fokalizatu dugu, lanetik kanpo geratu dira, ezinbestean, ahozko iturriak, nahiz eta susmatu Pouvreaux usu erabili zituela. (ik. § 4.1.). Horrenbestez, iturriak bi multzotan bildu ditugu: hiztezigzkoak, eta literaturazkoak. Bata eta bestearen problematikak desberdinak izateagatik, beren azterketa banan-banan egin behar izan dugu.

#### 2.3.1. *Literatur iturriak aztertzeke erabilitako metodologia*

##### 2.3.2. *Emaitzen fidagarritasuna*

Literatur iturrien ikerketan zenbait pausu eman behar izan dugu:

##### A) *Erreferentziadun lekukotasun guztiak egiaztatzea*

Egiaztapen horren beharra bi arrazoiengatik ikusi dugu: alde batetik, azterketan zehar hiztegiaren agertzen diren A laburduradun 358 lekukotasunetarik 7 Axularrengan ezin izan ditugulako aurkitu, eta bestetik, askotan, aipuak edo hitzak autoreen deituren lehen letraz besterik agertzen ez direlako, hau da, dagozkion liburuaren erreferentzia edota liburuaren orrialdeko zenbakirik gabe, hala nola Etxeberri Ziburukoaren eta Oihenarten kasuetan.

##### B) *Erreferentzia gabeko literatur lekukotasun balizkoak biltzea*

Horrela izendatu ditugu azterketaren denbora tarteko idazlanetan agertzen diren hiztegi erreferentziarik gabeko hitz edo aipuak. Noski, bildutako lekukotasun balizko guztiek ez dute halabeharrez izan behar idatzizkoak, baliteke zenbait ahozkoak izatea, baina, gero ikusiko dugunez, Pouvreaux gehienetan saiatu zen sarrera bati autoritate baten aipu bat atxikitzen (ik. § 4.3.), eta are gehiago, literatur kutsu gutxiko

<sup>7</sup> *RS*-i dagokionez Mitxelena, Lakarra eta Urgellen ikerlanen bitartez badakigu Darmstadt-eko alea, alegia, gaur egun ezagutzen den ale bakarra ez dela osoa, eta, jatorrizkoa, hots, Oihenartek ezagut zezakeela 200 bat atsotiz gehiago izan zezakeela.

sarreratan ere, hala nola *Cobrea, Iaka, Laharra, Lema, Marbola, Mea, Marteillua*. Horrenbestez, eta salbuespenak salbuespen, gehienbat literatur lekukotasuntzat har liteke.

Balizko lekukotasun horiei dagozkien sarrerak versalitzaz agertzen dira banakako iturrien eranskinetako tauletan. Esate baterako, Etxeberri Ziburukoaren *Iraustea* sarrera versalitzaz izateak adierazten du sarrera burua edota horri dagokion azpisarreraren bat balizko lekukotasunak direla, kasu honetan, *Adimendu campora irauziac* aipua hain zuzen (ik. § Etxagibel 2010).

### C) Balizko lekukotasunen banaketa fidagarritasun mailaren arabera

I.2.2. atalean ikusi dugunez, balizko lekukotasunen fidagarritasun maila aldakorra da. Hortaz, multzo desberdinak bereizi behar dira bere fidagarritasun mailen arabera. Oro har, bi multzo handitan banatzen dira:

#### 1) Aipu osoak

Horrela izendatu ditugu literatur testuetarik ateratako aipu osoak, hots, beren osotasun edota luzeraz identifikagarriak diren idatzizko testu pasarteak, hala Pouvreauren iturri ezagunekoak nola balizko iturri berriagoetarikoak. Esate baterako, Pouvreaux *Aldacac* sarreran, *On da adisquide baten aldacan içaitea* aipua sartzen du eta hori ia dudarik gabe Axularri dagokio: *on da adisquide baten, Mecenas baten aldacan içaitea* (Gero, 318). Gure analisiaren aipatutako mugengatik beren egiazkotasuna erabatekoa ezin izan arren, fidagarritasun maila handienetariko lekukotasunak (aurretzean FHNL) direla balioets dezakegu.

#### 2) Aipu txikiak

«Aipu txikiak» izendapenez bildu dugun zenbait lokuzio, izen, deklinabide kasu, hitz elkarketa, hitz eratorri, aditz, adizki, adberbio, etab., Pouvreaux literatur testuetarik atera ahal izan zitzakeenak. Adibidez:

- lokuzioak: *Aviadura handia darama* (Axular), *Erbi çauliac* (Etxeberri Z), *Arrain iguelduriac* (Etxeberri Z)
- izenak: *Beresca* (Harizmendi)
- deklinabide kasuak: *Ceurendaco* (Leizarraga), *Attencionerequin* (Argainaratz)
- eratorriak: *Erbaltasuna* (Etxeberri Z)
- adberbioak: *Noizic behin* (Axular), *Attentoqui* (Materre).

Multzo hau eratzeko Pouvreauren joeran oinarritu gara. Izan ere, Pouvreaux mota hauetako erreferentziadun aipu txiki franko sartu zituen bere hiztegian, esate baterako:

Leizarragarenak:

*Bethi danic* (Act. 15, 18), *Oraindrano* (Ro 8, 24), *Aurkaz aurk.* (Lu, 19, 30), *Erhogo* (Co, 11, 1), *Iraitstea* (Lu 10, 16)

Axularrenak:

*Valiatasuna* A. 136

Multzo honen fidagarritasun maila lehenengoarena baino txikiagoa da bi arrazoiengatik. Bata da, edozein aipu txiki berez zailagoa delako identifikatzeko orduan, eta

bestea, bere egiletasuna zehazteko probabilitatea aldatzen delako azterketan denbora tarteko autore batek, edo batek baino gehiagok erabilia izanaren ondorio.

Aldagai horien arabera, lau azpimultzo bereizi behar izan dugu:

A) «Lekukotasun bakarra»: azpimultzo honetan biltzen dira azterketaren denbora tarteko autore bakar batean diren lekukotasunak, geroztik, euskal literaturan zehar inoiz gehiago erabili ez direnak. Esate baterako:

*Escadroina*

Sarrera hau Etxeberriri legokiok: *Escadroñac ordenantçaz, ordenantçaz pausua* (Manual I, 84)

*Harroina*

*Harroinean 6666 colpe*: soilik aurkitzen da Haranbururen *Debocino escuarra*-ren 1690eko edizioan: «*Harroinean açotatu çuten Pilatus baithan; sei milla sei heun hirurogoi eta sei açote colpez cruelqui* (Debocino, 369)

Mota honetako lekukotasunak banakako iturrirei dagozkien eranskinetako tauletan «Corpus Arakatzailan dagoen lekukotasun bakarra» esaldiaz markatuak agertzen dira.

B) «Gainerako erabiltzaileak»: hemen biltzen dira azterketaren denbora tarteko autore bakar batez gain, geroztik euskal literaturan zehar autore gutxi<sup>8</sup> —lauzapostek— erabili dituzten lekukotasunak. Adibidez, *Cofauea* terminoaren lehen lekukotasuna Axularrean aurkitzen da: «*nola çabarrac cofauean barrena*» (Ax., 35), geroztik soilik Pouvreauk eta Etxeberri Sarakoak erabili zuten. Halaber, *Charrantcha* lehen aldiz Etxeberri erabili zuen: «*Orrace, eta charrantchac baita orratz meheac*» (Manual I, 103), eta, ondoren, Arxuk eta Duvoisinek baliatu zuten. Etxagibel (2010)-ean banakako iturrirei dagozkien ataletako eranskinetako tauletan «Gainerako erabiltzaileak» oharraz markatuak agertzen dira.

Azpimultzo honetan halako mailaketa bat egin behar da «gainerako erabiltzaile horiek» zein izan diren aintzakotzat hartuz:

1. Pouvreau izan da gainerako erabiltzaile bakarra.
2. Pouvreau eta 1666az geroztikoak dira gainerako erabiltzaileak.
3. 1666az geroztikoak dira gainerako erabiltzaileak.
4. Azterketa denbora tarteko autoreren bat da gainerako erabiltzaileen artean.

C) «Erabiltzaile bakarra»: azpimultzo honetakoak dira azterketaren denbora tartean Pouvreau izan ezik erabiltzaile bakarra izan duten lekukotasunak. Adibidez:

*Doillorra*

*Doillorqueria* azpiserara Axularrengan soilik aurkitzen da: *eta abalquea [...]* *doillorqueriaz preçatcea* (Ax. 96)

*Bandera*

*Banderaria* Etxeberriren *Manual*-ean soilik aurki daiteke: *Eta hain ordena deuot baten banderaria* (Manual II, 31)

<sup>8</sup> Termino batek zenbat eta erabiltzaile gutxiago izan hainbat eta probabilitate gehiago du jatorri bakarra izateko, jakina.

Horrelakoak, banakako iturriei dagozkien ataletako eranskinetako tauletan «Erabiltzaile bakarra» oharrak markatuak agertzen dira.

D) «Ondorengo erabiltzaileak»: azpimultzo honetan sartzen dira Pouvreau izan ezik azterketaren denbora tartean kronologikoki aurrena izandako autoreaz gain ondoren beste erabiltzaile batzuk izan zituzten lekukotasunak. Esate baterako:

*Billuzgorria*

*Billuzgorritasuna* Leizarragarengan aurkitzen da lehenbiziz: *aggueri eztençat hire billuzgorritasunaren laidoa* (Apo, III, 18), eta ondoren, azterketa denbora tartean Materrek erabili zuen.

*Urruna*

*Urrundanic* Leizarragak erabili zuen: *Eta Pierris iarreiquiten çayon vrrundanic* (Mat. XXVI, 58), eta, geroztik, Etxeberri Ziburukoa eta Oihenarten idazlanetan agertzen da.

Banakako iturriei dagozkien ataletako eranskinetako tauletan, «Ondorengo erabiltzaileak» oharrak markatuak agertzen dira.

Hiru fidagarritasun maila bereiz daitezke «aipu txikiak» multzoaren azpimultzo hauetan guztietan:

1) *Fidagarritasun maila handikoak (aurrerantzean FHL)*

— «*Lekukotasun bakarra*» azpimultzokoak

Fidagarritasun maila handiko lekukotasunak dira. Noski, kronologiaren eragina hartu beharko litzateke kontuan, hau da, besteak beste, *Erbaltasuna* Etxeberriri esleitezak egia izateko probabilitate handiago du Harizmendiri *Berasca* baino, zeren Pouvreauk azken hori hartu ahal baitzezakeen esate baterako, Etxeberriren *Egunerozco*-tik, edo Arginaratzen *Avisu...* liburutik.

— «*Gainerako erabiltzaileak*» multzoaren ondoko azpimultzokoak

a) Pouvreau gainerako erabiltzaile bakar gisa agertzen denean, esaterako:

*Bada eta ezpada*

Axularrez gain (Ax., 197), Pouvreau agertzen da lokuzio horren gainerako erabiltzaile bakar gisa. Hemen ia ziurtzat jo dezakegu Pouvreauk Axularri kopiatu ziola.

b) Pouvreauz gain gainerako erabiltzaile guztiak 1666az geroztikoak direnean, adibidez:

*Beguiramendua:*

Etxeberriz gain Pouvreau, J. B. Agirre, Lardizabal, eta Larreko izan dira termino horren erabiltzaileak.

c) gainerako erabiltzaile guztiak 1666az geroztikoak direnean, esate baterako:

*Bere presunaz*

Axularrez gain (Ax. 380), Etxeberri Sarakoak eta Larregik erabili zuten.

2) *Fidagarritasun maila ertainekoak (aurrerantzean FEL)*

— «Erabiltzaile bakarra» azpimultzokoak. Adibidez, azterketa denbora tartean *Iurgoa* soilik Leizarragak (*Othoitz*, 1288) erabili zuen.

Fidagarritasun maila ertaineko lekukotasunak dira. Izan ere, erabiltzaile bakarria izateak ez du esan nahi, ezinbestean, Pouvreuren iturria denik. Esate baterako, Harizmendi *Laquetgarria* terminoaren erabiltzaile bakar bezala agertzen da, baina Pouvreauk gorago esan dugun bezala gaur egun galdutako testuren batetik hartu ahal izan zuen.<sup>9</sup>

3) *Fidagarritasun maila apalekoak (aurrerantzean FAL)*

— «Gainerako erabiltzaileak» multzoko «azterketaren denbora tarteko beste autoreren bat da gainerako erabiltzaileen artean» azpimultzokoak. Esate baterako, *Egundainoticacoa* Etxeberri Ziburukoaz gain (*Manual* II, 14) Argainaratzek eta Duvoisinek erabili zuten. *Guibelatçaillea*: Etxeberriz gain Axular eta Pouvreau izan dira euskal literaturan hitz eratorri horren erabiltzaile bakarrak. *Behingoaz*: Leizarragaz gain, Etxeberri eta Axular izan dira gainerako erabiltzaileak. Horrelako kasuetan, oso zaila gertatzen da aipu horiek esleitzea beste irizpiderik gabe.

— «Ondorengo erabiltzaileak» azpimultzoko lekukotasun guztiak. Adibidez, *Aihercundea* Leizarragaz gain (*Regueri*, 1356) Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, eta Axularrek baliatu zuten.

FAL motako lekukotasunak fidagarritasun maila apalekoak dira, zeren eta ez da erraza jakitea zein izan ote zen Pouvreuren benetako iturria. Kontuan hartu behar dugu azterketaren denbora tarteko idazlan gehienak erlijiosoak direla, eta horrenbestez, gauza normala lirudike idazleek hitz eta aipu berak edo berdintsuak erabiltzea. Gainera, badakigu idazle batzuek beste zenbaiten idazlanen aprobatzaile gisa jardun zutela bai eta hainbatetan haietariko baten goraiapmena egin ere. Esate baterako, Axular Materrenen eta Etxeberri Ziburukoaren idazlanen eliza oneslea izan zen, Argainaratzek akrostiko bat eskaini zion *Noelac* liburuan Etxeberriri, Harizmendik ere poesia bat idatzi zuen *Debo-cino escurra* liburuan Haranbururen laudoriotan, etab. Horrek ere erraztu ahal lezake termino zenbait elkarri kopiatzea.

2.3.1.2. *Lekukotasunak esleitzeko erabilitako irizpideak*

Aurreko azpiatalean ikusitako lekukotasunen mailakatzek agerian uzten du delako lekukotasun batek iturri anitzetan jatorria izan ahal izateak dakarren auzia. Horrelakoetan, eta soilik corpora antolatzeako asmotan delako lekukotasun hori kronologikoki lehenbiziko iturriaren taulan jarri dugu, aipatuz orobat azterketa denbora tartean zein izan diren gainerako iturriak. Adibidez, *Çure favorearequin batean*, Materrenen taulan jarri dugu, aipatuz zein izan ziren ondorengo erabiltzaileak: Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, eta Axular.

<sup>9</sup> Hala ere, esanguratsua da *Marfilla*-ren kasua. Izan ere, FEL da Etxeberririk bakarrik erabili zuelako, baina, Pouvreauk Oihenarti «27 juin 1665» data duen bidalitako eskuizkribu batean «Du dictionnaire du Sr. Etcheuerri et autres» atalean (Urquijo 1909: 515) *marfilla* agertzen da, hots, FEL izatetik FHL bihur liteke.

Hala ere, batzuetan, zenbait irizpidek ahalbidetzen du esleitzea nolabaiteko ziurtasunez egitea:

#### A) *Iturriekiko koherentzia*

Badirudi Pouvreauk koherentzia apur bat gorde zuela delako sarrera bat idazle bakar baten lekukotasunen sortez betetzeko, hau da, lekukotasunak autorez autoren biltzen zituela irakurketaren hurrenkeraren arabera. Esate baterako, *Berretcea* sarreraren agertzen dira *Berretura* A, *Berrexapena* H, *Berretçapena* O erreferentziadun lekukotasunak eta FHL-ak diren *Berretçaillea* (Etxeberri Z.) eta *Berretasuna* (Argainaratz). Orobat, *Çucia*, *haroa* sarrera Etxeberriren lekukotasunez bete zuen: *Fedearen çucia* (FHL, *Noelac*), *Leinburutsu çucia* (FHL, *Manual*) eta *Haroa* (FEL, *Eliçara*).

Irizpide hau hainbatetan eraginkorra izan daiteke ondoko adibideek adieraziko luketen bezala:

#### *Aldea*

*Aldea* sarrera Axular eta Haranbururenak bide diren erreferentziarik gabeko lokuzioz osatua da:

Axularrenak: *Aitcin aldea* (FHL); *Aldez damu*, *aldez atsequin* (FHL); *Alde çaquitça* (FHL); *Etsaiari alderatcea* (FHL); eta *Alde guztiz conplitua* (FAL).

Haranbururenak: *aldez edo moldez* (FAL). Haranbururen ondoren, kronologikoki, Axularrek erabili zuen.

Kontuan hartuz, zazpi lokuzio Axularrenak direla, eta gainerakoa Haranburuz gain Axularrek erabili zuela, errazena eta logikoena guztiak Axularri esleitzea izango litzateke.

#### *Aisea*

*Aisequi* (FAL) bai Etxeberri bai Axularrek erabili zuten; berriz, *Aisetasuna* (FHL) Axularri dagokio.

Beraz, koherentziaz, pentsa liteke Pouvreauk bi azpisarrerak Axularrengandik hartu zituela.

#### *Alcifrea*

*Alcifrea* (FAL) sarrera burua Etxeberri erabili zuen, eta geroztik, gainerako erabilzaile bakarra Harizmendi izan da. Berriz, *Alcifredia* (FHL) Etxeberrirena da.

Ondorioz, probabilitaterik handienaz Pouvreauk sarrera burua eta azpisarrera Etxeberrirengandik hartu zituen.

#### *Arraya*

*Arrayatasuna* (FAL) Etxeberriz gain Axular eta Harizmendi izan ziren erabilzaileak azterketa denbora tartean. *Arraiqui* (FAL) Etxeberriz gain Axularrek erabili zuen, eta *Arraitsua* (FHL) Etxeberriri dagokio. Logikoena izango litzateke Pouvreauk azpisarrera guztiak Etxeberrirengandik hartzea.

#### *Hotza*

Sarrera horretan Pouvreauk Axularren ondoko balizko lekukotasunak sartzen ditu: *Hotz da* (FHL), *Hotzberatcea* (FHL), *Hotzqui* (FHL). Horietaz gain, *Hotzatasuna* (FAL) lehendabizi Materrek eta gero Axularrek erabilia.

Beraz, badirudi Pouvreauk lekukotasun horiek guztiak Axularrengandik hartu zituela.

*Ifernua*

*Ifernucio sua* (FEL) eta *Ifernuraco da* (FHL) aipuen erabiltzaile bakarra Axular da; berriz, *Ifernuratcea* (FAL) aditzaren erabiltzaileak euskal literaturan Etxeberri, Axular, Argainaratz, eta Duvoisin izan dira. Ondorioz, ematen du Pouvreauk Axularrengandik hartuko lituzkeela.

*Mendea*

*Mendez mende* (FAL) Haranburuk erabili zuen lehen aldiz, Axular, Harizmendi eta Argainaratz izanik «Ondorengo erabiltzaileak».

*Ez gara bi mendetaco* (FHNL) Axularren aipu bat da.

Horren arabera, ematen du Axular izan zela Pouvreauren iturria, zeren bi aipuen erabiltzaile agertzen baitzaigu.

*Ona*

Sarrera honetan literatur lekukotasunen bat duten azpisarreraren artean ondokoak agertzen dira: Axularren *Onguien dena ere on behar da* (FHNL) eta *Ongueguia* (FHL); Beriainen *Ongui eguitea* (FAL); Materereren *Ongui eguillea* (FAL).

Beriainen eta Materereren aipuen «Ondorengo erabiltzaileak» Axular izan zen. Horren arabera, badirudi Axular izango litzatekeela azken bi aipu horien iturria. Gainera, kasu honetan esan daiteke hori egiaztatua geratzen dela, kontuan hartuz, Pouvreauk bere hiztegian hurrenkeran jarri zituela lau aipuak, alegia, liburu berberetik hartu balitu bezala.

*Primeça*

*Primeça* (FAL) hitzaz Leizarraga baliatu zen lehenengo aldiz, Etxeberri, Harizmendi eta Argainaratz «Ondorengo erabiltzaileak» izanik. Berriz, *Primeçaz* (FAL) Etxeberri bestalde, Argainaratz eta Goietxe izan dira «Gainerako erabiltzaileak». Azkenik, *Primeçazcoa* (FHL) Etxeberrirena da.

Beraz, logikoena da, hala *primeça* nola *primeçaz* Etxeberriri esleitzea.

*Valiatcea*

*Valio du* (FAL) Leizarragak eta Axularrek baliatu zuten.

*Guti valioa* (FAL) Etxeberrik, Axularrek, eta Tartasek erabili zuten.

*Valiosa* hitzaz (FAL) Leizarragaz gain, Etxeberri, Haranburu, Axular eta Harizmendi baliatu ziren.

Balitzeko lekukotasun horiez bestalde, A. laburdura duen hitz bat agertzen da: «*Valiostasuna* A. 136». Hau da, ematen du Axular izan zela lekukotasun guztien iturburua.

B) *Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren irizpidea*

Koherentzia irizpidearen kasu berezitat har daiteke. J. Lakarrak irizpide horren aurrekari bat ezarri zuen Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzeko Eranskina*-ren iturriak aztertzerakoan, literatur iturrien aurretik hiztegi iturrien lehentasuna aldarrikatu zue-nean:

[...] Nabarmena iruditzen zait honelakoetan hiztegi batek edozein testuren aitzinean duen azalpen botere handiagoa; hara segidan adibide bat edo beste:

370. Libertad, *escudancia*, *lchoa*

Ax. 143 lehendabizikoarentzat eta Ax. 43 (baina adj.) aurkezten ditu M-k. Bi berbak ziren Ax-ek erabilien artean (bigarrena baita Leiz., Chourio, Etx. Zib., Etx. Sar.,



Pouv., Materre zein Gazteluzarrenetan ere) eta, beraz, L-k bere E-rako eskuragai zitu-  
tuen; halere nahiago dut H «liberté, *escudencia*»; «il a pris la liberté, *escudencia hartu du*;  
«libre, *lachoa*; il est en liberté, *lachoa da*». *Ohar bedi jarraian direla hitzok oro H-engan, hartzailleak mantentzen duen batasunenan* (Lakarra 1994: 60) (Etzana gurea da).

Irizpide hori literatur lekukotasunak esleitzean erabiltzeko oinarritzen gara Pou-  
vreauek testuetan pasarte berekoak edo elkarren artean hurbil diren erreferentziadun  
lekukotasunak jasotzeko zuen joeran, eta, erreferentziarik gabeko balizko lekukotasu-  
nen iturriak identifikatzeko extrapolatu dugu.

Joera horren adibiderik paradigmaticoenak Axularrengan aurkitzen dira, ondo-  
koak besteak beste:

*Bethacorra* (*Bethatcea*), *Çuhaitz bethacorra* (*Çuhaitza*), *çuhaitz alferra, fauna, hu-  
tsa* (*Fauna*) < Ax. 38, 22., «*çuhaitz bethacorra, eztu nehor ebaquitcen. Baiña, alferra, fauna...*»

*Enganatic* (*Enganatcea*), *Erdizcatcea* (*Erdia*) < Ax. 169, 22., «*Guiçon gaixto odol-  
isurle, guerlati, maliciati, eta enganatic, ezituzte bere egunac erdizcatuco...*»

*Erremental deguiian* (*Errementa*), *Harotzaren suteguiian* (*Harotza*) < Ax. 325,  
10. *Erremental deguiian, harotzaren suteguiian*

*Edateco* (*Edalea*), *Edateco kurca guztietan* (*Kurtcea*) < Ax. 342, 12. «*Bertce hegasti-  
nac edateco curca guztietan*»

Beste autore batzuegandik lekukotasun hurbilak jasotzeko joera bera ere ager-  
tzen da:

Etxeberrirengandik:

*Suac eguitentu çarçoac eta mortuco chirripac gurguraia* <E. p.19> (*Çarçoa*), *Mortuco  
chirripac eguiten du gurguraia*, <E> (*Gurguraia*) < Etx. (*Manual II*, 17), «*Suac ere ha-  
rengatic eguitentic çarçoac, Bai halaber gurguraia chirripa mortucoac*»

Haranbururengandik:

«*Murmuriça* H. 66»; «*Nasaitasuna* H. 66»; «*Iondone laurendi casacaldua* H. 76»;  
«*Laur çaldiz catratua* H. 76»; «*Çornez eta sarnez maldatua* H. 77».

Leizarragarengandik:

Apostol. Acteac-en XVI. kapitulutik ateratako *Ezbalimba* (37) eta *Eyec congit  
guiçon horiey* (38)

Askotan, Pouvreauren hiztegian pasarte beretik jasotako erreferentziadun eta erre-  
ferentziarik gabeko lekukotasunak aurkitzen dira:

Axularrengandik:

*ez behin ere* (FAL); *amore emaita* A. 292 ; *Amainatcea* A. 292 < Ax. 292. «*eta ez  
behin ere amoreric eman eta ez amaiñatu* ».

*Eztut deusen escasic, eztut guerocoen perilic* A. 75; *Ethorquiçunecotçat* (FHL), < Ax.  
75: *Orai atsequin har deçadan, ian deçadan, edan deçadan, ceren berdin eztut deusen es-  
casic, eztut guerocoren perilic, badut ethorquiçunecotçat beharden complimendu guztia*.

*Eritoquitcea* (FHL); *Incirinatsua* A. 250» < Ax. 250 «*Nola gure lehenbico aita harc, gure naturaleça haur, bere beccatuaz narriatu, arraçatu, eta eritoquitu baitçuen, handic gara hain arrencuratsu, incirinatsu, eta on behar.*

#### Etxeberrirengandik:

*Charho biztagarriak*, <E> (*Charhoa*); *Chauqui* (FAL), (*Chaua*); *Arrain iguelduria* (FHL), (*Arrain*) < Etx. *Manual*, 1. 88, «*Claro berce Ceruaren charho bistagarriac, [...], Ceña presentatcen baita chauqui mahañean. Vrean ere ezta içanen arrain iguelduriric...*»

#### Leizarragarengandik:

*Fedetic erauzgarri eta aldaragarri bat* (FHL), (*Erautstea*); *Eritheitcea* conf. 24); *Ezeztaçalea*, *Liz. Confes.* 23 < Leiz. *Fedeco Confessionea*, 1367, «*...neboren erauz eta aldaragarri baicen. Eta halaber [...] ezeztaçale beçala, [...] fundamentic gabe eritheitzebat...*»

*Cossiratcea*, *Liz*; *Deabruaren iauquimenduez* (FHL) (*Iauquitea*) < Leiz. *Othoitz Ecclesiasticoen Forma*, 1291, «*... haren escuaz afflictionez visitatzen eta cossiratzen denean du, [...], nola deabruaren iauquimenduez...*».

#### Horrenbestez, irizpide hori erabilgarria izan daiteke zenbaitetan:

— *Lekukotasun bat esleitzerakoan iturri anitzen artean*

*Guciarequin ere* (FAL)

Berriain izan zen aditzondo horretaz baliatu zen lehendabizikoa, eta «Ondorengo erabiltzailea» Haranburu izan zen.

Kontua da, Haranburuk pasarte berean erabili zituela *Guciarequin ere* eta Leizarragaz gain azterketaren denbora tartean berak bakarrik baliatu zuen *Artheguia* (FAL): *baina guciarequin ere ceure pietate gatic arçain onac beçala ni ardi errebelatua ceure artheguian sar naçaçu* (*Deb.* 1635: 186).

Horren arabera, Pouvreaurentzat errazena izango zen *guciarequin ere*, eta *artheguia* aldi berean Haranbururengandik ateratzea.

*Heyagora, oyua*

Sarrera honetan Pouvreauk *Heyagora*-ren euskarri bezala, Oihenarten pr. 528 sartzen du. Berriz, Corpus Arakatzaiaren arabera *Heyagora*-ren lehenbiziko erabiltzailea Leizarraga izan zen, baina, Axularren aipu batean: «*oihuz, heiagoraz*» biltzen da (*Ax.* 517), horrenbestez, Axularri esleitu beharko genioke.

*Naguiia*

*Naguitasuna* (FAL) Materrez gain Etxeberri, Haranburuk eta Axularrek erabili zuten; *Naguiqui* (FHL) Axularrez gain Duhalde eta Duvoisinek erabilia izan da.

Gertatzen dena da, Axularren ondoko aipuan biak batera agertzen direla: *Hasuiñac significatcen du naguitasun, baldin malguqui, leunqui, emequi, naguiqui eta balacuz beçala hazcatcen* (*Ax.* 41)

Hortik, errazena izango litzateke bi eratorriak Axularrengandik etortzea.

*Notha, cutsua*

*Nothatcea, cutsatcea* azpisarrera konplexu honetako *nothatcea*-ren lehenengo erabiltzailea Materre izan zen Etxeberri, Haranburu eta Axular direlarik «Ondorengo erabiltzaileak»; *cutsatcea* (FAL) Haranburuz gain, Etxeberri, Axular eta Harizmendik erabili zuten.

Alabaina, Axularrek bi hitzak biltzen diren pasarte bat idatzi zuen: *eta bertce guz-tiec ez tutelala hala desbistatcen eta ez bere ohorean nothatcen nola emaztequin ibiltceac eta cutsatceac* (Ax. 362). Ondorioz, Pouvreaurentzat errazena izango litzateke bi aldaerak Axularrengandik ateratzea.

*Plegua* (FAL), *berenez* (FAL)

Bi terminoak Haranburuk eta Axularrek erabiliak ziren. Baina Haranburuk biak pasarte berebanean erabili zituen: *bataz barurcea berenez guça* [sic] *ona baita eta berceaz guerocotz ere goizdanic plegu ona harceac hainitz valio baita* (Deb. 1635: 175) logikoena da pentsatzea Pouvreauk pasarte honetatik hartu zituela.

*Perfccionea*

*Perfeta* hitzaz (FAL), Etxeberri, Haranburu, Harizmendi eta Argainaratz baliatu ziren. Baina, Haranburuk *Perfeta*, *Perfetuqui* (FHL) biltzen duen pasarte bat idatzi zuen: *ceren eta perfetac perfetuqui behar bailuque cervitçatu* (Deb. 1635: 205). Horrenbestez, ematen du Haranburu izan zela Pouvreauren iturria.

*Sequeretua* (FAL)

Hitz hau euskal literaturaren historian Haranburuk, Axularrek, Pouvreauk, Etxeberri Sarakoak eta Decreptek erabili zuten. Pouvreauren iturritzat Haranburu jotzea ahalbidetzen du, Haranbururen pasarte berebanean bi lekukotasun aurkitzeak. Izan ere, *cofesiotic lekhora lekhu sequeretu baten iar çaittea* pasartean (Deb. 1635: 154) *cofesiotic lekhora* (FHL) eta *sequeretu* aurkitzen dira, beraz, errazena izango litzateke Pouvreauk aldi berean bi aipu txikiak hartzea.

— *Iturri bakar baten lekukotasunen fidagarritasun maila indartzeko*

*Nahicaria, Satsuia*

Corpus Arakatzaillean begiratu gero aurkitzen dugu Etxeparek *Nahicari* (FEL) eta *Saxuia* (FHL) idatzi zituela *Amorosen gaztiguya*-ren 13. ahapaldiko bertso berebanean:

*Andre honac vqhen dici ederretan gracia*  
*Ehorc hura gayxteriaz ecin leçan inbia*  
*Bana vistaz hilcençuyen nahicari saxuia*  
*Figuraren eqhustiaz daquiqueçu eguia.*

Horrek indartuko litzuzke *Nahicari* eta *Satsuia*-ren fidagarritasun maila

*Herexa, Ugaz aita*

*Herecha* (FEL) azterketaren denbora tartean soilik Tartasek erabili zuen, *Ugazaita* (FHL) Tartasez landa Mogel izan da gainerako erabiltzaile bakarra euskal literaturan zehar. Bi lekukotasun horiek *Onsa hilceco bidia*-ren 1. orrialdean hiru lerroz banatuak dira:

*Çure aippamena ohoratuda orotan ongui gin da baina ené soldadoac placer baduçu iarraiçui haren batçari, haren herechari [...] Ené soldadoa eztu oraino batheçyatu, haren vçazaita behar duçu içain placer baduçu* (Tartas 1666: 1).

Irizpide honen aplikazioan arazoak sortzen dira delako hurbiltasun hori bi iturritan gertatzen denean. Esate baterako, Etxepare da *Hiretaco* (FAL), *Guerthez* (FAL), eta *Mesura* (FAL) lekukotasunen lehenbiziko erabiltzailea. Hirurak *Amore gogorraren despita*-ren 10. eta 11. ahapaldietan aurkitzen dira. Beraz, hurbiltasunaren irizpidearen arabera errazena izango litzateke hirurak Etxepareri esleitzea. Hala ere, *Trebuca-*

*tcea* (FHL) soilik Leizarragak erabilia, *Escu escuina* (FAL) Leizarragaz gain Haranburuk erabilia, eta *Hiretaco* Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren S.Matt. V30.ean agertzen dira: *Eta baldin escu escuina trebuca eraciten bahau [...] ecen hobe duc hiretaco...* Horrenbestez, zeini esleitu *Hiretaco*? Gure ustez, kasu honetan ia dudarik gabe Leizarragari, kontuan hartzen badugu, lekukotasunen ehunekoan arabera, Leizarraga ~%22z Pouvreauren iturri nagusi bat dela, eta, ostera, Etxepare ~%1ez iturri txikia-goien artean sailkatu dugula. (ik. § 4.3.)

### C) Erraztasun maila iturrien testuen erabileran

Pouvreau euskaldunberri zelarik, erraztasunez, hiztegia prestatzen hasi zenean eskura ahal izan zituen euskal testuen artean berarentzat ulerterrazena zirenak lehenetsi bide zituen, hots, itzulpenak. Ikuspuntu horretatik Leizarragaren *Testamentu Berria* izango litzateke erraztasun maila gorena zuena. Izan ere, apaiza zelarik «Vulgata»-ren edizioak latinez edota frantsesez, ezinbestean, ezagutu behar zituen, eta ezagutza horrek lagunduko bide zion Leizarragaren euskal terminoak ulertzen; orobat gertatzen da Oihenarten *Les Proverbes Basques*-ekin; Harizmendiren *Officioac* eta Beriainen testuak, nahiz zabaleraz edo garrantziaz askoz xumeagoak izan, maila berberetan izango lirakeke.<sup>10</sup> Bigarren mailan izango lirakeke Haranbururen 1635eko *Debocino*-a, Axularren *Gero*-a eta Tartasen *Onsa*,<sup>11</sup> Izan ere, *Debocino*-n Vulgatako *Çazpi Salmo Penitencialac* euskaratuak baitira, *Gero*-ren kapitulu bakoitzean jorrotutako gaiarekin zerikusi duen Bibliatik edota eliza-autoritateen testuetarik jasotako latinezko pasarteren bat aurkitzen baita eta halaber gertatzen da *Onsa*-n. Gertakari horrek erraztuko litzeki zenbaitetan testuen irakurketa eta ulergarritasuna. Mailakatzeko horretan hurrengo mailan Etxeberriren *Eliçara* eta hiztegi galdua, eta Harizmendik moldaturiko *Debocino*-ren edizioa izango lirakeke. Izan ere, Etxeberriren hiztegi galdua euskara-latinezkoa bide zen arren, eta Etxeberriren *Eliçara*-ren eta Harizmendik moldatutako *Debocino*-ren edizioan *Çazpi Salmu Penitencialac* euskaratuak badira ere, antza denez, Pouvreauk zenbaitetan zailtasunak izan zituen euskal baliokideak ulertzeko. Kontua da, Pouvreauk Oihenarti eskatu ziola laguntza «D'Harismendi et du dictionnaire du Sr. Etcheuerri & autres» delako hitz zerrendaren hitzak azaltzeko (ik. § Etxagibel 2010), hau da, ematen du bi autoreen zenbait hitz ulertzeko zailtasunak izan zituela.<sup>12</sup> Azkenengo mailan kokatu beharko lirakeke gainerako testuak, ale-

<sup>10</sup> Izan ere, Beriainen *Tratado* eta *Doctrina*-ren testuak euskara-gaztelaniaz idatziak dira zenbait latinezko aipurekin eta, dirudienez, Pouvreauk gaztelaniaz bazekien, Harizmendiren *Officioac* Vinsonen arabera frantsesezko «L' Office de la Vierge Marie»-ren itzulpena da.

<sup>11</sup> Tartasi dagokionez Pouvreauren hiztegian bada testuen erabilera-erraztasunaren aldetik *Onsa* bigarren mailan sailkatzeko adibide bat: «*Gutiche, gutixe*. Fort peu» azpisarrera. *Gutiche* FHL da euskal literaturan zehar soilik Tartasek erabilia eta agertzen den esaldia aldamenen duen latinezko aipu baten itzulpena da: «Minus est mala non agere. *Gutiché dela gaizquiric ez eguitia*» (*Onsa*, 74). Argi da kasu honetan Pouvreauk *Gutiché*-ren esanahia ulertzeko oso erraz zuela.

<sup>12</sup> Erraztasun mailakatzeko Etxeberriren *Eliçara* eta hiztegi galdua eta Harizmendiren testua maila horretan kokatzeko froga da Pouvreauren jarrera desberdina ondoko adibideetan:

Etxeberriri dagokionez argi dago *Eliçara*-n diren *Çazpi Salmu Penitencialac* ezagutu eta erabili zituela. Izan ere, «*Hintz choria*. nycticorax» sarrera dudarik gabe Etxeberriren itzulpenetik jaso zuen: *Hala nola pelicano Tristea oihanera Edo hintz choria nola Ohatce urrunera* < Similis factus sum pellicanus solitudinis; factum sum sicut nycticorax in domicilia (*Psalm*. 101, 7), *Hintz choria* FHL da Etxeberriz gain

gia, euskara hutsez idatziak: Etxepareren *Linguae*, Etxeberriren *Manual* eta *Noelac*, Argainaratzen *Deuoten Breuiarioa* eta Materreren *Doctrina*.

Irizpide horren oinarria Pouvreuren joeran datza. Izan ere, badakigu Leizarragaren hainbat kasutan erreferentziadun lekukotasunen aldamenen dagozkien latinezko baliokideak agertzen direla, bai eta Axularren zenbaitetan ere, esate baterako:

Leizarragarenak:

- «*Maguinchac* Lu. 15, 16. siliquae»;
- «*Mihistoihalac*, Io, 19, 40. lintea»;
- «*Onhasuduna*, Lu, 18, . possessiones habens».

Axularrenak:

- «*Arraçadura urthatua*, A. 9. annosa passio (Ax. 93);
- «*Odol isurleec ezituzte bere egunac erdizcatuco*. A.164 viri sanguinum non dimidaiunt dies suos«.

Irizpide honetaz zenbait lekukotasun eslei liteke:

- «*Alea, aleguia, alleguia*. C'est ce qu'on dit en latin quasi vero, comme si, vrayement, voire»
- Alea* FAL da Haranburuk eta Axularrek erabilia, baina, Haranburuk latinetik euskaratu zuen bitartean Axularren kasuan ez da latinezko aipua:

---

soilik Aranbilagak erabilia euskal literaturan zehar. Halaber, «*Carraio bakarra*. passer solitarius» azpisarrera Salmu bereberek hurrengo ahapaldiari dagokio: *carraio bakharra nola Hegatztegui gorean* < sicut passer solitarius in tecto (*Psalm*, 101,8), baina, oraingo honetan Pouvreauk ez zuen ulertu «passer»-en baliokidea den Etxeberrik erabilitako *Carraio*-ren esanahia —ziurrenik, beheraxeago azaltzen dugunez, Haranburuk «passer» itzultzeko *Eliça choria* terminoa erabili zuelako— eta Oihenarti galdetu zion» D'Harismendi et du dictionnaire du Sr Etcheuerri & autres» hitz zerrendan (Urquijo 1909: 515) nahiz eta Oihenarten erantzuna O SP [du 30 May 1665]: «*Carraioa*. Charroy» hiztegian ez bildu.

Bestetik, ezaguna da Haranburuk 1635eko edizioiko *Çazpi Salmu Penitencialac*-en euskal itzulpena aldatu zuela bigarren edizioan bertsotan jarritz (ik. § Etxagibel: 2010). Esate baterako «Tu autem Domine in aeternum permanes & memoriale tuum in generationem & generationem» (*Psalm*. 101, 15) Haranburuk 1635eko edizioan ondoko itzulpena eman zion: *Ordea çuc, iauna bethi estante batean irauten duçu: eta çure orhoitçapena generacinoz generacino* (Haranburu 1635: 341), berriz, bigarren edizioan ahapaldi bihurtu zuen: *Ordea çure cozçara / Ezta nidor edatcen / Berdin castaric castara / Ezpaita mudatcen [sic]* (Haranburu 1690: 206). Pouvreauk ez zituen ulertu ahapaldi horren lehenbiziko bi bertsoak —latinez baliokide zuzenak ez zituztelako— eta Oihenarti galdetu zion: *Çure crozçara ezta nihor hedatcen* (Urquijo, 1909: 507). Ondoren, Oihenarten azalpena: «*Çure crozçara ezta nihor hedazen*. Personne ne s'auance jusqu'a vostre conte ou mesure» (O SP [Du 30 May 1665]) bere hiztegian horrela bildu zuen: «*Çure crozçara ezta nihor hedatcen*. Personne ne s'auance iusqu'a vn compte ou mesure. O.» Halaber gertatzen da «Ne revoces me in dimidio dierum meorum: in generationem & generationem» (*Psalm*, 101, 25) latinezko esaldiaren moldaketa den *Bada duçun urricari, / Ene gazte flaquça / Eta mende luçacari, / Iudaçu fortaleça* ahapaldian (Harizmendi 1690: 208). Pouvreauk *luçacari*-ren esanahia ulertu ez zuenez Oihenarti bidalitako eskuizkribu berebean galdetu zion (Urquijo 1909: 507). *Luçacaria* euskal literaturaren historian soilik Harizmendiren testuan agertzen da eta Pouvreuren hiztegian Oihenarten azalpenaz biltzen da: «*Luçacaria*. O. Longueur, lentitude, dilayement»

Ostera, «sicut passer solitarius in tecto» (*Psalm*. 101, 8) Haranburuk horrela euskaratu zuen 1635eko edizioan: *eta teilla gainean suelto dagoen eliça-choria beçalatu naiz* (Haranburu 1635: 340), berriz, bigarrenean *Eliza chori baccarrac / Hegatzeguian nola* agertzen da (Harizmendi 1690: 205). Kasu honetan Pouvreauk ez zuen zailtasunik izan «tecto»-ren baliokidetzat *Hegatzeguia* hartzeko. *Hegatzeguia* FHL da eta Pouvreuren hiztegian *Hegaztina*-ren azpisarrera gisa agertzen da.

*Ordea nic alea ni gor ez nuen deus aditcen* (*Deb*: 1635, 329) < Ego autem tamquam surdus non audiebam (*Psalm*, 32, 14).<sup>13</sup>

Pouvreauk bere hiztegiaren «tamquam»-en ordez haren sinonimoa den «quasi vero» jaso zuen.

Halaber gertatzen da ondoko adibideetan:

«*Bahea*. sas, tamis, crible, van»

FAL da Leizarragak (*Mat*. III, 12) eta Etxeberriek baliatua. Pouvreauri errazena izango litzaioke Leizarragak itzulitako pasartea frantsesezko itzulpena edota latinezko jatorriarekin erkatzea:

*Bere bahea bere escuan du*  
il a son van en sa main.<sup>14</sup>  
cuyus ventilabrum in mamu sua

*Billuzgorria*

«Billuzgorritasuna. nudité»

FAL da Leizarragak (*Apoc*, III, 18) eta Materrek erabilia. Materren kasuan ez da latinezko aipua, berriz, Leizarragaren kasuan:

*aggueri eztençat hire billuzgorritasunaren laidoa*  
que la vergogne de ta nudité n'apparoisse point  
non appareat confusio nuditatis tuæ.

*Çamaria, çaldia*

«*Çamalduna, çalduna*. cavalier, homme de cheval».

*Çamalduna* FAL da Leizarragak (*Act*, XXIII, 32) eta Tartasek erabilia. Tartasen lekukotasuna den pasartean ez da latinezko aipurik, berriz, Leizarragaren kasuan:

*Eta biharamunean vtziric çamaldunac harequin loacençât.*  
Et le lendemain ayans laissé les hommes de cheval pour aller avec lui.  
Et postera die dimmisit equitibus.

*Gain*

«*Espata magina*. fourreau d'épée». Leizarragak (*Io*, XVIII, 11) eta Axularrek erabili zuten (Ax. 540, 570). Axularren lekukotasunak diren pasarteak ez dagozkie inolako latin aipuei, berriz, Leizarragaren kasuan:

*Erran cieçon bada Iesusec Pierrisi, Eçarrac cure ezpatá maguinán* (*Testamentu Berria*)

Jesus donc dit à Pierre, Remets ton espée au fourreau  
Dixit ergo Jesus Petro: Mitte gladium tuum in vaginam.

«*Herdoilla*. roüille. herrumbre»

*Herdoilla* FAL da Leizarragak (*Matt*, VI, 19) eta Haranburuk (*Deb*, 419) baliatua. Haranbururen lekukotasuna ez dagokio inolako latinezko aipuri, berriz, Leizarragarena:

*Eztitzaçuela eguin çuen thesaurac lurrean, non cerrenec eta herdoillac ezpaitu goastatzen*

<sup>13</sup> Latinezko pasarte hori eta hurrengo adibideetan direnak ere Van Ess-ek 1822an argitaratu zuen «Vulgata»ren 1590eko edizioari dagozkio.

<sup>14</sup> Frantsesezko pasarte hori eta hurrengo adibideetan direnak ere Pouvreauren garaian «Bible de Genève de 1669» Elzevier-ek argitaratutako edizioari dagozkio.

Ne vous ammassez-vous des tresors au ciel ou, ni la tigne ni la rouille ne gasten rien  
Nolite thesaurizare vobis thesaurus in terre, ubi aerugo et tinea demolitur .

#### D) *Lekukotasunen erabilera maiztasuna*

Batzuetan, irizpide hau baliagarria izan daiteke. Esate baterako, *Sentitcea* sarrerako *Senticorra* (FAL) azpisarrerako Haranburuk eta Axularrek erabili zuten, baina Haranburuk aldi batez baliatu zuen bitartean, Axularrek hamasei aldiz erabili zuen. Horrek esan nahi du, Povreauk probabilitate gehiago izango zukeela Axularrengan aurkitzea, Haranbururengan baino. Halaber, gertatzen da hainbat adibidetan:

##### *Hastantcea*

*Hastandua* (FAL) Etxeberri 14 aldiz erabili zuen, berriz, Axularrek 1, Harizmendik 2 eta Argainaratzek 3. Beraz, probabilitate ikuspuntutik Etxeberri izango zen iturria.

##### *Chehero, cheheroqui*

*Chehero* Etxeberriren idazlanetan 6 aldiz agertzen den bitartean Axularren *Gero*-n behin bakarrik da. Bien arteko hein horren arabera Etxeberri izango zen iturria.

##### *Pentsatcea*

*Pensua* azpisarrerako (FAL) Axular eta Haranbururen arteko erabilera maiztasunaren heina 16:2 da.

##### *Sacramendua, sagaramendua*

*Sagaramendua* (FAL) Materrek 41 aldiz erabili zuela, eta hitz horren «Gainerako erabiltzaile» bakarra izan den Axularrek aldi bat. Horrenbestez, Povreauk bi idazle horietatik iturria izateko probabilitate gehien duena Materre da.

##### *Tarritacea*

*Tarritamendua* FAL da. Euskal literaturaren historian zehar Leizarragak 4 aldiz, Etxeberri 1 aldi batez eta Povreauk aldi batez erabilian. Horrenbestez, arrazoizkoena izango zen Leizarraga iturritzat esleitzea.

##### *Trufa*

*Trufatcea* (FAL) erabileraren maiztasunak ondokoak dira: Leizarragak 15 aldiz, Etxeberri 1, Haranburuk 1, Argainaratzek 5 eta Tartasek 6. Horren arabera Leizarragak izango zen iturria.

##### *Urriquitcea*

*Urricalquiçuna* (FAL) Axularrek 16 aldiz erabili zuen, ostera Haranburuk behin.

Lau irizpide horien eraginkortasunari dagokionez, nolabaiteko lehenetasuna ezarri beharko litzateke. Alde batetik, lehenbiziko hirurek Povreuren halako joeratan oinarria dute, berriz, laugarrena probabilitate hutsean oinarritzen da. Ondorioz, erabileraren maiztasunaren irizpidea soilik gainerako hiruren osagarritzat hartu beharko litzateke.

Batzuetan, aipatutako lau irizpide horietatik zenbait bat etortzen dira lekukotasuna idazle jakin bati egotzerakoan:

*Alea*

Goraxeago ikusi dugunez erraztasun maila iturrien testuen erabilera delako irizpidearen arabera Haranburu izango zen iturria Axularren orde. Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren irizpidea ere bat dator iritzi horrekin. Izan ere, 1635eko *Debocino-n Psalmus* 32-ri dagokion itzulpenean biltzen dira *Miserabletu naiz* (FHL), *Lilluramenduz* (FEL) eta *Alea* (FAL) (*Deb*, 1635: 327, 329).

*Sostengatcea*

*Sostengua* (FAL) Materrez gain, Etxeberri, Axularrek, Pouvreauk, Etxeberri Saraok eta Añibarrok baliatu zuten.

*Sostengatcea* (FAL) Etxeberriz gain, Haranburu, eta Axular dira «Ondorengo erabiltzaileak»

- a) Koherentziaz, Axular da bi lekukotasunak darabiltzan autore bakarra.
- b) Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren arabera, Axular agertzen zaigu iturri fidagarrien. Izan ere, *Gomendiozco Carta*-n, 5. eta 7. orrialdeetan, hain zuzen, sartu zituen bi lekukotasunak.
- c) Erabilera-maiztasunez: *sostengua* Materrek 3 aldiz, Etxeberri aldi bat, eta Axularrek 6 aldiz baliatu zuten. Berriz, *sostengatcea*, Haranburuk aldi bat eta Axularrek 6 aldiz.

Ondorioz, hiru irizpide horien arabera zilegi izango litzateke Axular Pouvrearen iturritzat jotzea.

*Tarritatcea*

*Tarritamendua* (FAL) goraxeago ikusi dugunez, lekukotasunen erabilera maiztasuna irizpidearen arabera Leizarraga izango zen iturria. Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren irizpidea ere baieztape honen alde da. Izan ere, FAL den *Nahastecamendua* —euskal literaturaren historian Leizarragaz gain, Axularrek eta Pouvreauk erabilia— *Tarritamendua*-ren aldamenean agertzen da ondoko pasarteetan:

*Ecen non baita inuidiaric eta tharritamenduric, han nahastecamendu eta obra gaichtogucia* (*Jac*, III, 16).

Ondorioz, bi irizpide horien arabera Leizarraga izango zen iturria.

*Travaillua*

*Travaillutsua* (FHL) eratorriaz Axular baliatu zen.

*Travaillaria* (FHL) Axular eta Etxeberri Sarakoa izan dira erabiltzaileak.

*Travaillatcea* (FAL) Leizarragak, Materrek, Voltoirek, Etxeberri, Haranburuk, Axularrek eta Tartasek baliatu zuten.

- a) Koherentziaz, ematen du Axular izan zela Pouvrearen iturria.
- b) Lekukotasunen arteko hurbiltasunez: Axularren bi pasartetan aurkitzen dira sarrera horren bi lekukotasun aldi berean:

*Ezta gaixtatasuna baiño gauça travaillutsuagoric, eta ez hartaco travaillua baiño* (Ax. 515)

*Ceren travaillariac bere travailluan baiño anhitzetan ere alferrac, bere alferquerian travaillu guehiago edireiten baitu* (Ax. 49)

*Urricaltea*

*Urricaria* (FAL) eta *Urricalmendutsua* (FAL) Materrez gain, Etxeberri, Haranburuk eta Axularrek erabili zituzten.



*Urricalmendua* (FAL) Etxeberriz gain Haranburu eta Axular izan ziren «Ondorengo erabiltzaileak».

- a) Koherentziaz: irizpide hori ez da eraginkorra, kontuan hartuz, hiru eratorriak Etxeberrik, Haranburuk eta Axularrek erabili zituztela.
- b) Lekukotasunen arteko hurbiltasunez: Etxeberriren aipu batean biltzen dira *Urricalitea* sarrera burua eta *Urricalmendua* azpisarrera: *Eta ezterrala launaren urricalmendua handia da urricalduco çaizco ene bekhatu handiac*
- c) Erabilera maiztasunaren irizpidearen aldetik, hona hemen zer aurkitzen dugun Corpus Arakatzailan:

*Urricaria*: Materre 1; Etxeberri 40; Haranburu 7; Axular 1;

*Urricalmendutsua*: Materre 1; Etxeberri 13; Haranburu 5; Axular 1;

*Urricalmendua*: Etxeberri 2; Haranburu 1; Axular 3;

Horren arabera, badirudi probabilitate ikuspuntutik Materre eta Axular direla probabilitate gutxien dutenak Pouvreuren iturria izateko. Beste aldetik, Etxeberri eta Haranburu artean probabilitateak Etxeberriren alde doaz. Ondorioz, lekukotasunen hurbiltasunaren eta erabilera maiztasunaren irizpideek adierazten digute Etxeberri izan litekeela Pouvreuren iturria.

Berriz, beste kasu batzuetan badirudi irizpideen eraginkortasuna kontuan hartu behar dela:

#### *Sequeretu*

Izen horren erabilera maiztasunaren heina Axular eta Haranbururen artean 16:4 bada ere, gorago ikusi dugun lekukotasunen arteko hurbiltasuna irizpidearen arabera, Haranburu agertzen zaigu Pouvreuren iturri fidagarritzat.

#### *E) Grafia eta «Usus Escribendi»*

Nahiz eta geroago azalduko dugunez (ik. § 3.2.1.) Pouvrearekin irizpide arrisurtsua bada ere, batzuetan baliagarria izan daiteke lekukotasunen bat esleitzera-koan:

#### *Hortz*

Sarrera horretako *Hortz carrascotz*, Leizarragak *hortz garrascotz* eta Axularrek *hortz carrasc-hortz* idatzi zuten. Horren arabera, ematen du, probabilitate handiz, Pouvreauk Axularrengandik hartuko zukeela aipua.

#### *Lana*

*Lanapeça*, *lanhabeça* azpisarrera konplexuan, Etxeberrik *lanabesa* (FAL) idatzi zuen, berriz Axularrek *lanhabesa*, beraz kronologia alde batera utziz, badirudi Axular iturritzat hartu zuela Pouvreauk.

#### *2.3.1.3. Lekukotasunak esleitzeko proposatutako irizpideen erabileraz*

Lekukotasunak esleitzeko proposatutako irizpide horiek zurruntasunez baino gehiago zuhurtasunez erabili behar dira. Dagoeneko adierazi dugunez, zenbaitetan eraginkorrak izan daitezke, baina ez, ezinbestean, kasu guztietan. Izan ere, irizpide

horiek ahozkoak izan daitezkeen hitz arruntei edo erlijiozkoei aplikatu baino lehen delako lekukotasunaren testuingurua aztertu behar da. Adibidez, latinetik jasotako eliza-kultismoak arruntak ziren Pouvreauren euskal idazle garaikideen artean, baina, baita elizkizunetan ere, horrenbestez, Pouvreauk bildutako zenbait erlijio hitz ez dira nahitaez testu-hitzak izan behar. Esate baterako, «*Sacramendua, sagaramendua*» hiztegiko sarrera erlijio hitz arruntaren bi aldaerek osatzen dute, beraz, funtsean, baliteke elizkizunetan erabilitako hitzak izatea, baina, *Sagaramendua* —Materrek 41 aldiz eta Axularrek aldi batez erabilia— berezi egiten duena <gr> kontsonante taldea apurtzeko <a> anapititikoa erabiltzea da.<sup>15</sup> Horrenbestez, kasu honetan arrazoizkoena da pentsatzea Pouvreauk literatur iturri batengandik, Materrerengandik, hain zuzen, jaso zuela eta ez elizkizunetatik. Ostera, *Artiçarra*-z azterketaren denbora tartean Etxepare, Leizarraga, Etxeberri, Axular, Oihenart eta Harizmendi baliatu ziren. Funtsean, pentsa liteke autore hauen artekoa izan zela Pouvreauren iturria, baina, kontuan hartuz, apaiz guztiek —Pouvreauk barne— latinetik euskaratuak ziren Birginaren Letanietan «*Stella matutina*»-ren baliokide den *Artiçar goiztiarra* eguneroko elizkizunetan errezatzen ohi zutela Pouvreauk azken hauetatik jasoko zuela da egiantzekoena.

### 2.3.2. *Hiztegi iturrietako azterketan erabilitako metodologia*

Pouvreauk ikuskatu ahal izan zituen euskal hiztegien artean —Leizarraga eta Oihenarten idazlanen hiztegitxoak alde batera utziz— gaur egun, bakarrik, Voltoirerena ezagutzen dugu (ik. § 0). Berriz, iturritzat har zitzakeen erdal hiztegiei dagokienez, badakigu Pouvreauk Oudinen *Trésor des deux langues espagnolle et française* erabili zuela (Kerejeta 1991: 869, 12. oh.).

Literatur iturriekin gertatzen den bezala, Pouvreauren hiztegi iturriekin ere iturri anitzen auzia agertzen da. Izan ere, Pouvreauren hiztegia eta Voltoirerena erkatzerakoan gertatzen da zenbait lekukotasunek iturri bat baino gehiagotan izan lezakeela jatorria. Kasu hauetan, iturria esleitzeko asmotan ondoko irizpideak erabili ditugu:

#### A) *Hiztegi iturrien lehentasuna literatur iturrien aurretik*

Irizpide hori J. Lakarrak proposatu zuen Larramendiren *HH*-ren Eranskinetako iturriak aztertu zituenean (ik. § 2.3.1.2.B). Hainbatetan, delako lekukotasun bat aldi berean Voltoireraren hiztegian eta literatur testu batean agertzen denean, Voltoireri esleitu diogu. Esate baterako, Leizarragaren bide diren *Chiquiratcea* eta *Quilicatcea*, edo Axularren *Sapataguina* eta *Urdaya* Voltoireri egotzi dizkiogu.

#### B) *Hiztegi elebidunaren lehentasuna*

Irizpide hori aurrekoaren ondorioa da. Hau da, erosotasunez, Pouvreauk literatur iturri baten aurretik hiztegi iturri bat erabiliko zuen, are gehiago, hiztegi iturri hori

<sup>15</sup> Berriz, azterketa denbora tarteko gainerako autoreek anaptisi gabeko aldaerak baliatu zuten: Etxeparek *Sagramenduia*, Leizarragak eta Tartasek *Sagramendua*, Beriainek eta Etxeberrik *Sacramentua* eta Axularrek *Sagaramendua*-z gain *Sacramendua* eta *Sacramentua*.

elebiduna bazen. Zenbait lekukotasun esleitu ahal izateko, hala nola *Acusatcea*, *Anayatasuna* Oudinren frantses-gaztelaniazko hiztegiaren aurretik lehenetsi dugu Voltoireren frantses-euskarazko hiztegia (ikus Etxagibel 2011).

### C) *Koherentzia*

Irizpide hau literatur lekukotasunetarako proposatu dugun irizpide bera da (ik. § 2.3.1.2.). Oihenarten *Oten Gastaroa Nevrtbizetan* liburuaren amaierako euskara-frantsesezko hiztegitxo elebiduna eta Voltoireren frantses-euskarazko hiztegia Pouvreuren iturriak izan ahal direnean, koherentziaz, iturri nagusia den Voltoire lehenetsi dugu, adibidez, *Beruna*, eta *Igueltsua* kasuetan.

### D) *Egituraren irizpidea*

Irizpide hori Lakarrak ezarri zuen Larramendiren *HH*-ren Eranskinetako iturriak aztertzerakoan:

...testu baten, orobat hiztegi baten, eta haren iturriaren arteko erlazioa ez dela nahitahiez zuzenbide bakarrekoa; simetrikoa izatera heltzea ezinezko bada ere, egokitasun sistemaren ezagutzak bata izanaz bestearen alderdi zenbait deribatzea dakarkigu inoiz (Lakarra 1996a: 32).

Voltoireren hiztegiko egituraren zantzu zenbait Pouvreuren hiztegian aurkitzeak ahalbidetzen digu iturritzat bermatzea. Izan ere, Voltoireren sarreraren artean beste batzuk tartekatua izan arren, oro har, Pouvreauk Voltoireren hiztegiko euskara-frantsesezko ordenari eusten dio, esate baterako, hiztegiaren hasieran: *abadea* [x,x,..], *aberatsa*, *abrea*, [x,x,..], *absolvatcea*, *acabatcea*, etab. Ez hori bakarrik, Voltoireren hiztegiko ordena berbera gordetzen diren bizpahiru sarrerek osatutako hainbat hurrenkera aurkitzen dira Pouvreuren hiztegian, hala nola: *bessoa*, *besta eguna*; *carnaceria*, *çarpa*; *dohatsua*, *doblea*, *dohacabea*; *egoitea*, *egoitstea*, *egostea*; etab. (ikus Etxagibel 2011).

## 3. Azterketa

### 3.1. Azterketaren aurkezpena

Etxagibel (2010)-en banakako iturriek eskainitako ataletako eranskinetan lekukotasunak biltzen diren taulak bi zutabetan banatu ditugu, ezkerrekoan Kerejetaren edizioeko euskal sarrerak biltzen dira, eta eskuinekoan beren itzulpenak, frantsesez, gaztelaniaz, edo latinez. Horrez gain, bigarren zutabe horretan, eta Pouvreuren lekukotasunen egiaztagarri gisa, *armiarma.com*. Corpus Arakatzailan aurkitutakoak bildu ditugu. Esate baterako, Pouvreuren *Alhatcea* O sarrera Axularren lekukotasunei dagokienez honela agertzen da:

Euskal sarrera	Itzulpen eta aipuak
ALHATCEA O. <i>Ifernuan alha çayen eta alhaco çayen harra</i> A. 595	Paistre, manger Le ver qui les ronge & les rongera en l'enfer Kap. LVII, 595: <i>Eta haur da, gau eta egun, behin ere asse gabe, sosegatcera utci gabe, alhaçayen eta alhaco çayen harra</i>
<i>Bere buruari alhaturic</i>	Kap. VIII, 98: <i>eta bere buruari alhaturic, ethorquiçunaz gogoeten iartcenda</i>
<i>Ahalpidea, ahalbidea</i>	Corpus Arakatzailan dagoen lekukotasun bakarra
<i>Ardi lagunen alhapidetie aldaratua</i> A. 78	Kap. VI, 78: <i>eta bere ardi lagunen alhapidetie aldaratcen, eta hastantcen da</i>

Ezkerreko zutabeen sarrera burua eta azpisarrerak Kerejetak prestaturiko edizioan bezala agertzen dira hemen ere. Sarrera burua versalitatez izateak adierazten digu sarrera honetan balizko lekukotasunen bat aurkitzen dela, kasu honetan *Bere buruari alhaturic*. Balizko lekukotasun honen lerro berean eta eskuineko zutabeen Axularren aipua agertzen da: *eta bere buruari alhaturic, ethorquiçunaz gogoeten iartcenda* eta aipuaren hurrengo lerroan bere identifikazioa: «Corpus Arakatzailan dagoen lekukotasun bakarra», hots, aipua «lekukotasun bakarra» multzoari dagokio.

Gure aurkezpenean eguneratuak diren Corpus Arakatzailaren grafien ordez Pouvrearenekin erkatzeko jatorrizkoak jarri ditugu (ik. § 2.1.)

### 3.2. Iturrien azterketa

Bi talde bereizi ditugu: literatur iturrietakoa, eta hiztegi iturrietakoa. Bien problematikak ezberdinak direnez, bereiziz aztertu behar dira.

#### 3.2.1. Literatur iturrien azterketa

Literatur iturrien ikerketan bi pausu eman behar izan dugu. Alde batetik, Pouvrearen erreferentziadun lekukotasun guztiak egiaztatzen saiatu gara, eta honetaz azpimarratu behar da —geroxeago, idazle bakoitzari eskainitako ataletan zehazten denez— identifikatzeke geratu direla Axularri egotzitako A. laburduradun 7 lekukotasun; Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galduari, eta, agian, *Egunorozco* liburuari legezkiekeen 53 lekukotasun; Haranbururen *Debocino escuarra*-ren Harizmendik mol-datutako edizioari legezkiekeen 22; O. laburduradun 109 lekukotasun —ziurrenik Oihenartek Pouvreauri bidalitako eta gaur egun desagertutako zerrenda zenbait legezkiekeenak—.

Bestetik, balizko lekukotasunak biltzen saiatu gara. Pouvreauk —frogatuta geratu denez— (ik. § 1.3.) bost idazle erabili zituen iturri gisa, bere hiztegian berak laburdura batzuez markatu zituenak: Leizarraga: L., Liz., Leiz.; Etxeberri Ziburukoa: E.; Axular: A.; Harizmendi: H, eta Oihenart: O. Hala ere, eta ez dakigun zioagatik, bost

autoritate horien aipu asko eta asko erreferentziarik gabe ere sartu zituen. Horietaz gain, beste idazle batzuenak izan litezkeen zenbait aurkitu ditugu: Etxepare, Materre, Beriain, Haranburu, Argainaratz eta Tartasenak hain zuzen ere.

Lekukotasunen kopuruaren arabera, bi mota bereizi ditugu: iturri nagusiak, eta iturri txikiagoak:

Lehendabizikoen artean aurkitzen dira Axular ~%24z, Leizarraga ~%22z eta Etxeberri Z. ~%21ez, eta Oihenart ~% 20z. Bigarren taldean Haranburu ~%5ez, Materre ~%4z, Etxepare ~%1ez, eta %1 baino gutxiagoz Harizmendi, Tartas, Beriain, eta Argainaratz. (ik. § 4.3.)

Horrezaz gain, identifikatzeko geratu zaizkigun balizko literatur lekukotasun zenbait bi taldetan bildu dugu:

#### A) Aipuak

Oraingoz, identifikaezinak geratu zaizkigun 91 aipu, ia guztiek erlijio kutsurik dutenak, bildu ditugu (ik. §. Etxagibel 2000). Pentsatzekoa da, Pouvreaux gaur egun galdutakoak diren idazlanetarik atera zituela. Noski, litekeena da ere, berak asma-tuak eta inoiz ez erabiliak izatea. Baina, alde batetik, Pouvreaux aipuekiko zuen joera biltzailea ezagutuz gero (ik. § 4.3.), eta bestetik, kontuan hartuz, bere itzulpenetarik aipu hainbat eta hainbat hiztegiari hartu zituela (ik. § 4.4.), ez du ematen oso egian-tzekoa denik. Hala ere, Etxeberriri eta Haranbururi egotzi dizkiegun gutxi batzuk alde batera utziz, gainerakoak identifikaezinak dira. Horren harira, baliteke Olzek 1651n *Pregariac Bayonaco Diocesacotz* (lapurteraz) eta *Pregarioac Bayonaco Diocesacotz* (behenafarreraz) izenburuez argitaratu zituen testuetarik zenbait ateratzea. Dagoeneko Vinsonek iradoki zuen Pouvreaux argitalpen bi horiek ezagutu beharko litzukeela, bere hiztegiari *Pregariac* eta *Pregarioac* aldaerak sarrera berean bildu baitzituen: «*Pregariac*. prosne. *pregarioac*» (1891: 91-92).<sup>16</sup>

#### B) Errefrauk

Oihenarten atzotitzez gain Pouvreaux C. Oudinen errefrautegitik ateratako frantses-gaztelaniazko errefrau asko inolako erreferentziarik gabe sartu zituen bere hiztegiari —zenbait berak euskaratuak— (Lakarra 1995: 24). Kerejetak prestaturiko Pouvreauxen hiztegiaren edizioan 180 inguru egiaztatuak agertzen dira. Gure aldetik 88 gehiago egiaztatu ditugu.

Horiez gain, gure azterketan zehar identifikaezintzat har daitezkeen 61 errefrau aurkitu dugu, hiru taldetan banatu ditugunak:

- A) Pr. laburduraz markatutako 13 errefrau, normalki frantseseko bertsioarekin (ik. Etxagibel 2010).
- B) Oudinen liburutik ateratakoekin antzekotasun formala duten bi errefrau, hau da, euskarazko bertsioaz gain frantsesekoa eta gaztelaniazkoa dituztenak eta latin-frantseseko bat. (ik. Etxagibel 2010).
- C) Gainerakoak: euskara-frantseseko 27 errefrauak eta euskaraz idatzitako 18 (ik. Etxagibel 2010).

<sup>16</sup> Gure ikerlanean aukera hori ezin izan dugu egiaztatu Olzeren testuak eskura izan ez ditugulako.

Errefrau horien paremiologia iturriak izan litezkeenei buruz hona hemen orain-  
goz esan dezakeguna: dagoeneko M. J. Kerejetak aipatu zuen Zalgizeren errefrau bil-  
dumaren batekiko antzekotasun handia zuen ondoko errefraua:

*Çu handi ni handi norc erranen dio gure astoari, arry: tu fais le grand, moy le grand  
qui dira a l'asne avance < Zalgize, 147. Hi handi ni handi, norc erranen du gure astoari,  
harri (Kerejeta 2003: 43, 513 oh.).*

Gure aldetik, Zalgizeren errefrau batekiko ia antzekotasun osoa duen beste bat  
aurkitu dugu, *Errota* sarreran hain zuzen ere: *Errotan berant deçanac, bidean laster,*  
pr. < Zalgize, 93., *Eyberan berant deçanac vidian laster.* Atsotitz hori eta Pr. labur-  
dura duten gainerakoak legezkioko argitaratu gabe geratu zen Oihenarten bildumako  
zenbaiti (ik. Etxagibel 2010). Gainerakoei buruz zer esan daiteke? Noski, ematen du  
guztiak Pouvreaux moldaturikoak direla, baina zein izan ote litezke jatorrizko itu-  
rriak?

Balizko lekukotasunak jasotzerakoan Pouvreaux erreferentziadun lekukotasunak  
biltzeko eran ondoko hiru ezaugarri aintzakotzat hartu dugu:

— *Parafrasia*

Askotan ez ditu hitzez hitzeko aipuak erabiltzen, baizik eta bere erara moldaturi-  
koak sartzen ditu hiztegian, Axular eta Etxeberriren ondoko adibideek erakusten du-  
tenez:

Axularrenak:

*Tiratcen bagaitu asco den beçain bertce* A. 102 < Ax. *Eta thiratcen gaitu [...] eta  
oraîño orduan ere deitzen bagaitu ere, asco den beçain bertce.*

*Guibel beldurtia da maliciatia.* A. 448 < Ax. *Conciencia gaixtoa, maliciatia, eta fede  
gaixtoz dabillana, bethi da nequez, eta travailluz, bethi da goan behartsu, iduricor, gui-  
bel, veldurti eta sosegu gabe.*

*Eria iraulcatcen da ohean.* A. 598 < Ax. *Eriac gau lucean iragaiten duen travaillua,  
guztiz ere eritasuna çorrotza, eta bortitza denean: nola iraulcalcenden.*

*Tigre arrac bere nabardurac, colore picardatuac ecin alda.* A. < Ax. 93 *eta Tigre arrac  
ere, bere nabardurac, colore picardatuac alda, vtz eta muthaditçanean*

Etxeberrirenak:

*Suac eguintentu çarçoac eta mortuco chirripac gurguraia* E. P. 19 < Etx. *Suac ere ha-  
rengatic eguintentic çarçoac, Bai halaber gurguraia chirripa mortucoac.*

Leizarragarenak:

*Hainitzez gueyagoc cinetsi dute.* Io. 4 < Lç. *Eta anhitzez guehiagoc sinhets ceçaten  
bere hitzagatic.*

— *Grafia aldaketak*

Maiz, Pouvreaux ez die idazleen jatorrizko grafiei eusten, batez ere, txistukari eta  
hasperendunen kasuetan<sup>17</sup> ondoko erreferentziadun lekukotasunetan ikus dezakegunez:

<sup>17</sup> Are gehiago, Pouvreaux ez ditu bere itzulpenetan eta bere hiztegian grafia berdinak erabiltzen.  
Esate baterako, Haranbururen *Barkhacinoa*, *Barkacino* bihurtzen du hiztegian, baina gero *Barkhacino*

- *b-*, *-b-* > *v*: *balio* (*araldea*) > *valio*; *irabacia* (*asmatcea*) > *irauasia*;
- *-ns-* > *-ntz-*: *ceraunsón* (*bulharra*) > *cerauntzon*;
- *-s-* > *-z-*: *burguesía* > *burguezía*;
- *-th-* > *-t-*: *beguithartean* > *beguitartean*;
- *-tz-* > *-tc-* (ia sistematikoki): *aitzumenic* > *aitçumenic*;
- *-z* > *-tz*: *borz* (*berrogoy*) > *bortz*;
- *-zt-*, > *-tzt-*: *bekaizteria* > *bekaitzteria*;
- *-zt-* > *-tst-*: *erauzten* (*bidea*) > *erautsten*;

#### Etxeberrirenak:

- *-b-* > *-v-*: *habarrotz* (*açantça*) > *auarrotz*;
- *h-* > *ø*: *habarrotz* (*açantça*) > *auarrotz*; *hazcuntça* (*aztea*) > *azcuntça*;
- *-ntz-* > *-nç-*: *açantza* > *açança*;
- *-ph-* > *-pp-*: *aiphuric* > *aippuric*;
- *-tsq-* > *-tzq-*: *aberatsqui* > *aberatzqui*;

#### Axularrenak:

- *-b-* > *-v-*: *abiadura* > *auiadura*;
- *v-* > *b-*: *veltçuri* > *beltçuri*; *viltcen* > *biltcen*; *vorondatea* > *borondatea*;
- *-cc-* > *-k-*: *beccatuac* > *bekatuac* (*afentcea*); *baccotchean* > *bakotchean*; *bir-iccusi* > *bir-icustea*; *iccusten* (*aztura*) > *icusten*; *barccatcecoetaric* > *barkatcecoetaric*; *beccaitzcoa* > *bekaitzcoa*;
- *h-* > *ø*: *haiotza* (*ayotza*) > *ayotza*;
- *-nç-* > *-ntç-*: *añçatsutu* > *antçatsutu*;
- *-ntc-* > *-nc--*: *ardantcetic* > *ardancetic*; *conciencia* (*autemaitea*) > *consciencia*;
- *-nts-* > *-ns-*: *darauntsanean* (*athea*) > *daraunsanean*;
- *-st-* > *-sts-*: *sinbeste* > *cinhetste* (*bakkuna*);
- *-tc-* > *-ts-*: *vtciric* (*ardura*) > *vtsiric*;
- *-tz* > *-ts*: *erdietz* (*buthoitceas*) > *erdiets*;
- *-zt-* > *-st-*: *buztan* > *bustan*;

Argi da Pouvreauren grafia-aldaketak ez dagozkiela grafia-arau orokorreari eta zaila da ulertzea zergatikoa.

#### — Gramatika jokabideak

Askotan, Pouvreauk erreferentziadun lekukotasunetarik sarrera buru edo azpi-sarrerak eratortzeko bi jokabide erabili zuen ondoko tauletan erakusten den bezala:

---

idatzi zuen *Philorbea* liburuan; halaber, berak asmatutako hiztegiko *Iaustiri*, *Iaustiri* bihurtzen du *Philo-tea*-n. *Iesusen Imitationea*-n *Herzcaillua*, *Hertscaillua* bihurtzen da, etab.

## Deklinabide kasuak &gt; Absolutibo

Leizarragaren deklinabide kasuak <i>Testamentu Berria-n</i>	Leizarragaren deklinabide kasuak Pouvreuren hiztegian
<i>Arrauberiaz</i> (Matt. XXIII, 25)	<i>Arrauberia</i> , Mat. 23, 25
<i>Cobrezco uncienac</i> (Marc. VII, 4)	<i>Cobrezco untciac</i> , Mar. 7, 4
<i>Presoindegui çolan</i> (Ac. XVI, 24)	<i>Presondegui çola</i> Ac. 16,24
<i>Ezti orrace batetatic</i> (Luc. XXIII, 42)	<i>Ezti orrasea</i> , Lu. 24, 42
<i>Halsarretan</i> (Cor. II, VI, 12)	<i>Halsarrac</i> , 2 Cor. 12

---

Axularren deklinabide kasuak <i>Gero-n</i>	Axularren deklinabide kasuak Pouvreuren hiztegian
<i>Athea bere erroetan eta uhaletan</i>	<i>Athearen erroac eta uhalac</i> A. 45
<i>Çafardarraco eder bat</i> (Ax. 45)	<i>Çafardacoa</i> A. 467
<i>Escutoquiric</i> (Ax. 153)	<i>Escutoquia</i> A. 153
<i>Ezti-berazcatic</i> (Ax. 356)	<i>Ezti berazca</i> A. 356
<i>Harotzaren suteguiian</i> (Ax. 325)	<i>Harotzaren suteguiia</i> A. 325
<i>Horniçoïnaz</i> (Ax. 36)	<i>Horniçoïna</i> A. 36
<i>Valiostasunetic</i> (Ax. 136)	<i>Valiostasuna</i> A. 136

## Adizkiak &gt; Aditz izena

Leizarragaren adizkiak <i>Testamentu Berria-n</i>	Leizarragaren adizkiak Pouvreuren hiztegian
<i>Nigar uriz arrogatzen</i> (Luc. VIII, 38)	<i>Arreagatcea nigar uriz</i> Lu 7, 38
<i>Bandatoz trocha ceçan</i> (Luc. II, 7)	<i>Bandatoz trochatcea</i> Lu. 2, 7
<i>Biribilgatua</i> (Io. XX, 7)	<i>Biribilgatcea</i> Io. 20
<i>Empara eçac</i> (Matt. XXVII, 40)	<i>Emparatcea</i> Mat. 27, 40
<i>Eressiz cantatu drauçuegu</i> (Luc. VII, 32)	<i>Eressiz cantatcea</i> Lu 7, 32
<i>Hatzaman livoiten hitzean</i> (Matt. XXII, 15)	<i>Hitzean hatcemaitea</i> , Matt. 22, 15
<i>Adulterio iauquiten du</i> (Luc. XVI, 18)	<i>Adulterio iauquitea</i> , Lu. 16, 18

---

Axularren adizkiak <i>Guero-n</i>	Axularren adizkiak Pouvreuren hiztegian
<i>Amainatu</i> (Ax. 292)	<i>Amainatcea</i> A. 292
<i>Bulharca iarri</i> (Ax. 460)	<i>Bulharca iartcea</i> A. 460
<i>Çabartcetic</i> (Ax. 188)	<i>Çabartcea</i> A. 185
<i>Comparaitçacu</i> (Ax. 320)	<i>Comparatcea</i> , A. 320

Baliteke Pouvreauk bi jokabide horiek Leizarragarengandik hartuak izatea. Izan ere, Leizarragak ebangelioetarik horrelako sarrerak eratorri ohi zituen *Testamentu Berrico Materien Erideiteco Taulá* delakoan. Esate baterako: «*Aserretzea* matt. 5. 22» < S. Mateoren ebangelioan «*aserretzen baitzayo*»; «*Magistratua*, rom. 13. 1.» < S. Pauloren epistolari «*Magistratuaganaco obedientia*»; «*Paradisoa* luc. 23, 43» < S. Lukasen ebangelioan *Paradisoan*, etab.

Horrenbestez, guk ere horrelako jokabideak aintzakotzat hartu ditugu balizko lekukotasunen bilaketan. Esate baterako, hiztegiko *Venturazcoa* ez da agertzen Corpus



Arakatzailan, baina bai *Venturazco* (FHL) soilik Leizarragak erabilia, eta ondorioz, berari egotzi diogu. Orobat, *Trebucatea* (FHL), Leizarragaren testuetan *Trebuca*, *Trebucatu* eta *Trebucetzen* bezala agertzen da, eta dudarik gabe Pouvreauk Leizarragaren-gandik hartu eta bildu zuen bere hiztegian *Trebucatea* bezala.

Lekukotasunen bilketan aurkitutako hiru ezaugarri horiez gain azpimarragarria da —nahiz eta erreferentziadun lekukotasunetan ez aurkitu— Pouvreauk izan zuen joera garbizalea. Izan ere, aldi behin izan arren, idazleek erabilitako zenbait maileru garbitu bide zuen:<sup>18</sup>

Axularrenak: *Escata* sarreran, *Beztitu* > *Estali*; *Pagatcea* sarreran, *Content* > *Boz*  
 Etxeberrirenak: *Hautetstea* sarreran, *Patroin* > *Nausi*  
 Leizarragarenak: *Baldia* sarreran, *Arca* > *Cutcha*; *Berria* sarreran, *Resuscitatu* > *Pitsuric*; *Bulcatea* sarreran *Bortharen bulcatea* > *Athearen bulcatea*; *Gabea* sarreran, *Alchagarri* > *Lemami*; *Othia* sarreran, *Vianda* > *Iaquia*.  
 Materrenak: *Ez* sarreran, *Creatu* > *Athera*

### 3.2.2. Hiztegi iturrien azterketa

Lekukotasunen kopuruaren arabera bi mota bereizi ditugu: hiztegi iturri nagusietakoa, eta hiztegi iturri txikiagoetakoa. Ustekabean, Voltaire agertzen zaigu Pouvreauren hiztegi iturri nagusien gisa. Izan ere, bere sarrerak eratzeko «Spece de Grammaire» ataleko barruan dagoen «Dictionnaire Alphabetiq» delako frantses-euskarazko hiztegia hustu zuen ia sistematikoki bere grafiara bihurtuz. Gure kalkuluen arabera Pouvreauren hiztegi 704 sarrera buru edota azpisarrera Voltairerenerari legozkioke. Letraz letra, Voltaireren sarreren heinak ondokoak dira:

A: 95 / 507 ; B: 77 / 384; C: 73 / 521; D: 23 / 128; E: 69 / 358; F: 7 / 73;  
 G: 53 / 251; H: 44 / 241; I: 60 / 257; K: 3 / 31; L: 36 / 183; M: 33 / 252; N: 15 / 61;  
 O: 26 / 146; P: 24 / 212; Q: 1 / 13; S: 34 / 206; T: 7 / 114; U: 24 / 133;

Hiztegi iturri txikiagoen multzoan ondoko hiztegian bildu ditugu: Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galdua (ik. Etxagibel 2010, 2011), eta oraingoz bederen, Oudinen *Tresor...* delakoa, kontuan hartuz, oraindik ez dagoela argi Pouvreauren erabilera zenbaterainokoa den. Horiez landa, Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren amaierako *Çuberoaco Herrian Vsançatan...* izenburuko hitz bilduma, Oihenarten *Notitia*-ren XIII. kapituluko gaztelania-euskara hiztegitxo, «Index Rerum Et Verbum» delakoa, eta *Oten...* liburuko hiztegitxo.

## 4. Hiztegi gintza

Iturrien azterketak ahalbidetzen digu Pouvreauren hiztegi gintzaz ikuskera orokorra izateko:

<sup>18</sup> Berak ere, aldi batez behintzat, bere burua garbitzen du: *Guiristinoaren Dotrina* liburuko *Bat banacaco combatac* asmatutako aipua, hiztegian, *Bat banacaco guduac* bihurtzen du.

#### 4.1. Hiztegiko egituraketa

Pouvreauk bere hiztegiko hezurdura eratzeko Voltoireren hiztegia eta Oudinena erabili zituen, nahiz eta esan dugunez azken honen erabileraren hedadura, oraingoz, aztertu gabe izan (ikus Etxagibel 2011).

Hezurdura hori osatzen zuten sarrerak betetzeko ondoko estrategia erabili bide zuen: alde batetik, ahal izan zuen guztietan iturrien hitzen eta aipuen bitartez edozein sarrera buru edota azpisarrerari eusten saiatzen zen, eta behar izanez gero, delako sarrera horren etimologia hutsuneak betetzen zituen bere kabuz, askotan, bere itzulpengintzarako asmatu behar izan zituen termino eta lokuzioez, hori bai, euskal idazleen irizpideei jarraituz. Estrategia horren erakusgarri dira ondoko adibideak:

Voltoireren «Capitaine: *Capitaine*» sarrera honela bete zuen:

*Capitaintcea* azpisarreraren *Nola capitainduco da?* <A> Axularren aipua sartu zuen. Horrez gain, eta sarrera betetzeko berak asmatu bide zuen *Capitaintasuna* eratorria agertzen da.

Voltoireren «Cuivre, airain: *Cobrea*» honela hedatu zuen:

*Cobrea*: Cuivre, airain

*Cobrezco untciac*, Mar. 7, [4]: aramenta

*Cobreztatcea*: garnir de cuivre

Alegia, *Cobrezco untciac* Leizarragaren aipu txiki bat, eta ziurrenik berak asmatu-tako *Cobrestatcea* termino etimologikoa sarrera osatzeko.

Voltoireren «Pourpoint: *Iaka, guipoina*» sarrera konplexua:

Axularren aipu bat sartu zuen: «*Oyala iakataco*» A.

Voltoireren «Gouvernail, peautre: *Lema*» sarrera, Etxeberriren lekukotasunez bete zuen:

*Lema*: Gouvernail, peautre

*Lemacoa*, *lemaria*, *lemean* [toa] E.

*Lemeada*: gubernaculi motus

*Lematcea*, E.

Ez bakarrik hori, literatur lekukotasunetarik ere sarrera buru asko deribatu zituen. Leizarragaren ondoko bi adibideek erakusten dutenez:

*Aldiria* sarrera burua *Aldirietaco hiriac* eta *Haren aldiri gucietan* aipuetarik deribatu bide zuen

*Baldia* sarrera burua *Arkaren baldia* azpisarreratik deribatu zuen.

Azkenik, ez da zalantzan jartzetik Pouvreauk ahozko jardueratik sarrera asko bilduko zituela. Esate baterako, «*Garmendia*: sorte de pomme»; «*Garioa*: sorte de oiseau»; «*Espalda*: epaule de viande»; ez dira agertzen inolako testutan, eta herrikoitzat har genitzake. Horren harira azpimarratzekoa da itsas arloko hainbat hitz biltzea, hala nola: *Amarratcea*, *Bocal çabarra*, *Mazcorra*, *Norta*, *Sequera*, *Masta*, *Suduesteco çarra*, etab. Hauetarik lehenbiziko bostak soilik Etxeberri Dorreren liburuan agertzen dira.

## 4.2. Povreuren hiztegitza motez

Ikusi dugunez, orain arte bi jarrera eman dira Povreuren hiztegitza motari buruz. Alde batetik, Mitxelenaren ustez hiztegia autoritate hiztegi bat zen. Oстера, Lakarrak hiztegia etimologikoa zela frogatu zuen (ik. § 1.3)

Gure iritziz, Povreuren hiztegitzatan bi jarrera horiek biltzen dira, alegia, autoritate hiztegia izateko baldintzak bete ez arren,<sup>19</sup> Povreurengan joera biltzailea eta aldi berean, bere garaiko euskal corpusaren urritasunak behartuta, joera sortzailea aurkitzen dira.

## 4.3. Povreau biltzailea

Povreuren joera biltzailea kuantifikatzeko hiztegi letretako lekukotasunen kopurua neurtu dugu, hau da, lekukotasunen bat, nahiz erreferentziaduna nahiz balizkoa duten sarreraren kopurua neurtu dugu. Zenbaketa egiterakoan ondoko irizpideak erabili ditugu:

- Askotan, Povreauk sarrera konplexuak errepikatzen ditu. Esate baterako *Beltçuria* azpisarrera *Bekaitztea* eta *Beltza* sarreretan sartzen du. Horrelakoetan, delako lekukotasun hori soilik sarrera batean zenbatu dugu, bestean lehenengoari erreferentzia eginik. Adibidez, aipatutako kasuan *Beltza* sarrerako *Beltçuria* azpisarrera «cf. *Bekaitztea* sarrera» esapideaz markatuta dago.
- Oihenarten lekukotasunei dagokienez gure zenbaketan alde batera utzi ditugu Oihenartek Povreauri bidalitako hitz zerrendetan agertzen direnak, eta O. laburdura izanik ere, identifikaezinak geratu zaizkigunak zeren ez baitira Oihenarten benetako lekukotasunak, baizik eta, beste iturri batzuetatik ateratakoak.
- Voltoireren «Colloques et Dialogves»etik ateratako lekukotasunak zenbaketa honetatik kanpo utzi ditugu, hiztegi lekukotasuntzat hartuz. Emaitzak ondoko taulan agertzen dira:

*Letraz letrako lekukotasunen banaketaren taula*

Letra	Sarr.	Arg.	Ax.	Ber.	Etz.	Etp.	Hb.	Hm.	Leiz.	Mat.	Oih.	Tart.	Guzt.
A	507	2	120	4	124	4	22	3	58	19	87	3	446
B	384	1	100		56	5	15	3	95	11	76		362
C	521	2	65		60	1	13	1	58	11	55	3	269
D	128		25	1	28	5	13	1	43	2	13		131
E	358	1	125	3	70	4	16	2	92	16	72		401
F	73		5		9		2	1	11	5	2		35
G	251		70	2	35	1	14	4	62	8	50	1	247
H	241	1	69		73	3	19	2	69	10	77	1	329

<sup>19</sup> Lépinettek «de autoridades»-erako ondoko definizioa eman zuen Covarrubiasen hiztegia aipatzekoan: «ce concept d'autoridades —tel que nous l'entendons aujourd'hui [...] i.e. phrases exemplaires dont le rôle lexicographique est celui d'adjuvant dans un processus d'explicitation sémantique de la langue —espagnole ici— et en même temps, celui de réalisation modélique dans un discours valorisé, est dans tous les cas, totalement étranger à Covarrubias» (Lakarra 1995: 13, 8. oh.).

Letra	Sarr.	Arg.	Ax.	Ber.	Ext.	Etp.	Hb.	Hm.	Leiz.	Mat.	Oih.	Tart.	Guzt.
I	257		87		51	3	11		62	9	65	1	289
K	31	1	6		8		3		8	1	6		33
L	183		27	1	56	3	8	3	41	9	32		180
M	252		44		43	4	9	3	43	7	21	2	176
N	61		19		19	1	5		15	3	25	1	88
O	146		29	4	38	5	10	1	41	5	72	1	206
P	212		39	1	49	4	12	3	32	7	15	2	164
Q	13		2		2		1		1				6
R	2								2				2
S	206	1	37		36	5	9	1	26	9	37	2	163
T	114		15	1	20		3	1	20	3	9	2	74
U	133		29	2	25	2	8	1	37	3	44	1	152
X	3										2		2
Guzt.	4.076	9	913	19	802	50	193	30	816	138	760	20	3.750

Sarr.: Sarreren kopurua; Arg.: Argainaratz; Ax.: Axular; Ber.: Beriain; Ext.: Etxeberri Z.; Etp.: Etxepare; Hb.: Haranburu; Hm.: Harizmendi; Leiz.: Leizarraga; Mat.: Materre; Oih.: Oihenart; Tart.: Tartas; Guzt.: Lekukotasunak Guztira.

Hau da, batez beste, sarreren % 92-k dute lekukotasunen bat.

Iturriko lekukotasunen banaketa fidagarritasun mailaren arabera ondoko taulan agertzen da:

*Iturriko lekukotasunen banaketaren taula*

	ER L	F H N L	F H L	F E L	F A L	Iturriko Guztira	Iturriko %
Axular	350	95	355	90	23	913	24,35
Leizarraga	270	34	187	41	284	816	21,76
Etxeberri Z.	120	61	312	101	208	802	21,39
Oihenart	698	2	49	10	1	760	20,26
Haranburu	41	5	83	23	41	193	5,15
Materre		5	18	6	109	138	3,68
Etxepare			5	1	44	50	1,33
Harizmendi	3	1	16	7	3	30	0,80
Tartas		1	15	4		20	0,53
Beriain			4	1	14	19	0,51
Argainaratz			7	1	1	19	0,24
Lekuk. Guztira	1.482	204	1.051	285	728	3.750	
Lekuk.%	39,52	5,44	28,03	7,60	19,44		

ER L: Erreferentziadun lekukotasunak

F H N L: Fidagarritasun maila handieneko lekukotasunak

F H L: Fidagarritasun maila handiko lekukotasunak

F E L: Fidagarritasun maila ertaineko lekukotasunak

F A L: Fidagarritasun maila apaleko lekukotasunak

Nabarmentzekoa da FHNL, FHL eta FEL artean ERL-en kopurua gaintzen dela. Zenbaki esanguratsu horiez gain, Pouvreauren joera biltzailea erakusteko baliagarriak izan daitezkeen zenbait adibide jaso ditugu:

*A) Hitz elkarketa eta eratorrien biltzailea*

Mitxelena Pouvreauren horrelako joera aurreratu zuen dagoeneko 1961ean:

Maiz gertatu zait, alaz guztiz ere, nik asmatutzat neukan itz erakarri bat liburuetan aurkitzea, bai Axular'engan eta bai Etxeberri Ziburu'koagan. Baditeke, beraz, geiago ere jasoak izatea, ez osatuak (Mitxelena 1961: 18, 19).

Ondoko adibideak nahikoa dira jarrera hori azaltzeko:

*Adatsa, cherloa, illeac*

*Adatsdun* (FHL) Leizarragaz gain soilik Pouvreauk erabili zuen *Adats izpiac* (FHL) Etxeberriri dagokio.

*Aratza*

*Aratzqui* (FHL) eta *Aratztasuna* (FHL) Etxeberriri dagozkio.

*Arina*

*Arinqui* (FAL) Etxeberriri dagokio, *Arintasuna* (FAL) Leizarragari, *Arintçaillea* (FHL) Materreri, *Arintcarria* (FHL) Axularri, eta azken honen aldaera *Aringarria* Pouvreauk erabili zuen lehen aldiz euskal literaturaren historian.

*Desira*

Materrenak: *Desiramendua* (FHL)

Haranbururenak: *Desirapena* (FAL) Haranburuz gain Etxeberrik erabili zuen.

Axularrenak: *Desircundea* (FAL); *Desirosa* A. 312.

*Erremusina, aumoina, limosna*

Axularren *Gero* liburutik atera zituen azpisarrera guztiak: *Erremusinaria* (FHL), *Erremusinalaria* A., *Erremusinaguillea* (FHL).

*Iduria*

Axularrenak dira ondoko eratorriak: *Iduricorra* (FEL), *Iduricortsua* (FHL), *Iduricortcea* (FHL). Horietaz gain, Etxeberriren *Iduripena* (FEL) biltzen da.

*Manua*

*Manatçaillea, manaria*. Azpisarrera konplexu honen bi sinonimoak Etxeberriren *Manual Devotionezcoa*-n aurkitzen dira: *Manaria* (FHL), eta *Manatçaillea* (FEL).

*Miracuillua*

*Miracuilluro, miracuilluz, miracuilluzqui*

Haranbururena da *Miracuilluro* (FHL) eta Axularrena *Miracuilluzqui* (FHL).

*B) Aipuen biltzailea*

Pouvreaux ez zen hitz elkarketa eta eratorrien biltzailea izatera mugatu, aipu osoez gain bere iturrietarik «aipu txiki» asko bildu zuen, bai eta xumeenak ere. Batzuetan,

autore bakar baten aipuak sartzen ditu sarreretan; berriz, bestetan, autore askorenekin betetzen ditu:

— *Autore bakar baten aipuak dituzten sarrerak*

*Aldatzea*

Axularrenak diren *Alda nahia* (FHL) eta *Alda nahitcen da* (FHL) aipu txikiak bildu zituen.

*Arma*

*Armaçoina* (FHL) *armaçoñ* idatzia soilik Etxeberrik erabilia izan da.

*Eredua*

Sarrera honek dituen hiru azpisarrerak liburu berberetik atera zituen, *Manual Devotionezcoa*-tik hain zuzen: *Ereducoa* eta *Ereduzcoa* azpisarrerak (FHL), eta *Eredura* azpisarreraren aipua *Haren eredua* (FHL) Etxeberriz gain Pouvreauk *Philothea*-n eta Etxeberri Sarakoak erabilitakoa da.

*Hobia*

*Urbobia* (FHL) eta *Haraitcina hobiratu cen* (FHNL) Etxeberriren *Manual Devotionezcoa* liburutik atereak dira.

*Hondarra*

Lekukotasun bakarrak (FHL) diren Axularren hiru aipu biltzen dira sarrera honetan: *Bertceren hondarrak*; *Lurraren hondarrean*; eta *Mahatz hondar-mondarrac*.

*Salutacionea, salutancia*

Sarrera konplexu honen *Salutacionea* (FHL) eta *Salutancia* (FAL) Etxeberrirengandik hartuak bide dira.

— *Iturri anitzetako aipuak dituzten sarrerak*

*Bidea*

Leizarragarenak: *Çoazte bide cantoinetara*; *Bidetic aldaratcen eta erautsten gara* (FHNL); *Bide çavala* (FAL), *Bide hersia* (FHL); *Bidezco da emaita?*; *Etçayon bidezco idurritcen berequin har leçaten*; *Bide den humilitaterequin*.

Etxeberrirenak: *Bide chuchena* (FEL)

Axularrenak: *Bide huts eguinac* (FHL); *Bide meharra* (FHL); *Ezta bertce bideric* (FHL).

Oihenartenak: pr. 99; pr. 495.

*Dembora*

Leizarragarenak: *Dembora gaitza* (FAL) eta *Demboratacotz* (FHL).

Etxeberrirenak: *Demborazcoa* (FHL).

Axularrenak: *Cembait demboratacoa* (FHL).

*Gutia*

Leizarragarenak: *Gauça gutian leyala hainitzaren gainean eçarriren da* (FHNL).

Beriainenak: *Gutienean* (FAL).

Haranbururenak: *Hitz gutiz* (FAL); *Gutitanago* (FHL).

Axular: *Gutiac dira salvatcen direnac*, A; *Falta gutitagatic ere* (FHL).

Oihenartenak: pr. 205.

#### *Iduria*

Leizarragarenak: *Hura dirudi* (FHL).

Axularrenak: *Iduria du eta ez içana* (FHNL), *Ez icusi iduri eguitea* (FHL), *Elkarren idurica dute* A.155, *Iduriz* (FEL).

Etxeberrirenak: *On idurian* (FHL).

#### *Lamboa edo lambroa*

Etxeberrirenak: *Lamboa* (FAL) Etxeberriz gain Axularrek eta Pouvreak erabilia, eta *Lambroa* (FEL).

Axularrenak: *Beguiac lambotcen çaiçquit* (FHNL).

### — *Sarrera edo azpisarrera konplexuetan bi idazle*

#### *Eheinatcea, errecaitatcea*

*Eheinatcea* (FHL) Oihenarti dagokio, berriz, *Errecaitatcea* (FAL) Haranbururi dagokio, ondoren soilik Axularrek eta Pouvreak erabilia.

#### *Handia*

*Handiqui, handiro, handizqui.*

*Handiqui* (FHL) Axularri dagokio; *Handiro* (FAL) Etxeberriz gain Haranburuk, Harizmendik eta Pouvreak erabili zuten; *Handizqui* (FAL) Harizmendik eta Tartasek baliatu zuten.

#### *Herrautsa, erhautsa*

Sarrera konplexu honen *Erhautsa* (FAL) Leizarragari dagokio, eta *Herrautsa* (FAL) Etxeberriri.

#### *Iaincoa*

*Iaincoakez igorria* (FHL) / *Iaincoaren partez* (FAL). Lehenbizikoa Leizarragari dagokio, bigarrena Axularri.

#### *Iraiquitcea, eraiquitea*

Leizarragak *Eraiquitea* (FAL) erabili zuen eta kasu honetan gainera, iturria egiaztatu geratzen da zeren eta *Eraiquitea* ondoan TA letrak agertzen baitira (Kerejeta 2003: II, 59, 437 oh.), alegia, *Testamentu Berrico Acteac*-en laburdura bide dena. Etxeberrik *Iraiqui* (FHL) erabili zuen.

#### *Lebena*

*Lehen bai lehen, lehen baino lehen.* Etxeberrik *Lehen bai lehen* (FAL) erabili zuen eta Tartas da ondorengo erabiltzailea; berriz, Axularri dagokio *Lehen baino lehen* (FHL).

#### *Titcha, dixá 2 <pr.>, heldea*

Sarrera honetan biltzen dira «*Heldea, Titcha E.*» sarrera konplexua eta *Proverbes*-en behin baino gehiagotan agertzen den Oihenarten aldaera: *Dixá* (hortik, pr. laburdura agertzea).

#### 4.4. **Pouvreau sortzailea**

Dagoeneko 1995ean Lakarrak frogatu zuen Pouvreauren joera sortzailea (ik. § 1.3). Joera horren erakusgarri, euskal literaturaren historian berak bakarrik erabilitakoak eta horrexegatik, —gure lanabesen mugak ahaztu gabe— ziurrenik, berak sortutako 250 bat aipu txiki bildu ditugu (ik. Etxagibel 2010).

Hitz eta lokuzio berrien sorkuntza ez bide zen gelditu hiztegia bukatzerakoan. Izan ere, *Iesusen Imitacionea*-n hiztegian agertzen ez diren bi termino aurkitu ditugu:

*Noizpaiterainokotz*, (*Iesusen Imitacionea*, 3. 7 kap.) ez da agertzen hiztegian, berriz, hiztegioko *noizpaiteraino* eta *noizpaiterainoko*, *Guda espirituala* liburuan erabili zituen.

*Putruzatcea*, (*Iesusen Imitacionea* 3. 13, 20 kap.) ez da agertzen hiztegian. Ostera, *Putruza* sarrerako *Putruztea* —*Putruzturik* forman— *Iesusen Imitacionea*-ren 3. 5 kapituluan agertzen da.

Vinsonek iradoki zuen Pouvreauk *Iesusen Imitacionea*-ren lau liburuak garai ezberdinetan itzuli zituela: «Les quatre livres sont de diverses époques. Le troisième est plus «brouillon», le quatrième plus net que les autres» (Pouvreau 1979: 20).

Kontuan hartuz hiztegian agertzen ez diren aipatutako bi termino horiek 3. liburuan aurkitzen direla, eta halaber gertatzen dela gaztelaniazko pasartearekin (ik. § 4.5.), ondoriozta genezake 3. liburu hori izan zela, hain zuzen ere, hiztegiari lan-tzen utzi ondoren itzuli edota zuzendu bide zuena, 1666?, 1667 ?- 1669 tartean.

#### 4.5. **Pouvreau itzultzailea**

Bi joera horiez bestalde, Pouvreauren hiztegegintzan bada alde azpimarragarririk, bere itzulpengintzarako gaitasuna, hain zuzen ere. Kerejetak Pouvreauren itzulpen-gintzan huts baten ondorioz iradoki zuen Pouvreauk agian ez zekiela ondo gaztelaniaz:

batean behintzat harrapatu dut Pouvreau tokatzen ez dena kopiatzen ere: *Alaba* sarre-ran, «fille» da ematen duen frantsesezko kidea, eta Oudinek *fille*-ren ondoren dioen gutzia aldatzen du, hau da: «hija, moça, doncella», begi bistan dago azken biak ez da-gozkiola *alaba*-ri. Ez dakigu Pouvreauk ez ote zekien gaztelaniaz uste izan den bezain ongi, edota «automatismo» hutsaren ondorio ote den (Kerejeta 1991: 869, 12. oh.).

Gure aldetik, Kerejetaren zalantzak deusezta litzakeen pasarte bat aurkitu dugu Pouvreauren itzulpengintzan. Kontua da, *Iesusen Imitacionea* liburuan bi paragrafo-ren artean gaztelaniazko pasarte bat agertzen dela bere euskal itzulpena izan nahi lu-keenaren albon:

[...] *eta campotic bilhatu duçun baque harc guti irauenen du çure bibotzezco estatua permatua ezpada eguiazco cimenduaren gainean, erran nahi da, ene baitan egoiten eta fincatcen ezpaçaude. Ezpaçare.*

«Quiero dezir que si non estuvieres en mi bien te puedes mudar mas no mejorar por que venida la ocasion hallaras lo que huyas y mas adelante»

*Lecuz alda deçaqueçu, cein ordea hobe çaitesque largatic: ceren ocasionec guertaturic eta hura çu harturic aurkituko duçu ibesi cindoazcon gucia eta gueyago [...]* (Pouvreau 1979: 167-168).



Gure ustez, pasarte hori itzulpen ariketa baten zirriborroa da. Pouvreau zalantzan bide zegoen *ezpaçau*de ala *ezpaçare* «si non estuvieres» gaztelaniazko euskal kidea aukeratzeko; halaber, *erran nahi da* forma inbertsonala «quiero dezir» formaren orde, etab.

Horrek esan nahiko luke Pouvreauk Kempisen liburua euskaratzeko, latinezko orijinala —J. M. Satustregik uste zuenez— (Pouvreau 1979: 17, 18), eta gaztelaniazko itzulpena biak batera erabili zituela, edo bakarrik azken hori. Bide batez, gaztelaniazko pasarte hori hitzez hitz egokitzen zaio Fray Luis de Granadaren 1536. urtean argitaratutako itzulpenari (Fray Luis de Granada 1871: 158).

Alabaina, Pouvreuren euskararekiko gaitasun eta ezagutzari buruz zalantzak dira. Vinson izan zen horrelakoak iradoki zituen lehenengoa:

Certains détails de l'orthographe de Pouvreau, par exemple le confusion qu'il fait entre *s* et *z*, me font supposer qu'il ne parlait pas très couramment le basque et qu'il devait le prononcer assez mal. (Vinson 1891: 120, 1 oh.)

Gure aldetik, hona hemen aurkitu ditugun zenbait itzulpen akats:

*Artiçarra*, *art-urratcea*, *arguiçarra*: étoile du matin

Axularren *art-urratcea*-k, noski, ez du «étoile du matin» esan nahi.

*Hondarra*: le fonds, la lie, le reste

«*Lurraren hondarrean*: au centre de la terre» Axularrengandik hartzen du: «*Lurrean barrera gure azpian, lurra duen lecuric beheerenean, centruaren alde, lurraren hondarrean*».

*Iabaltcea*, *beheititcea*: s'adoucir & temperer: defervere

Axularrengan du etorkia: «*Hango succarra, eta berotasuna, ezta behin ere iabaltcen eta ez beheititcen*». Pouvreauk *beheititcea iabaltcea*-ren sinonimotzat jotzen du.

*Ohia*

*Ohicunde*a, *usança*, *sequientça*, *hazcuntza*: acoutumance

Axularren aipuan batean agertzen diren sarreraren lau hitzak aldaera bezala hartzen ditu: «*iccusaçue iaunac, cer eguiten duen usantçac, cein indar handia duen hazcuntça, lehenbico sequientçac, eta ohicundeac*».

*Vicia*, *bicia*: la vie, vif

*Erleec viciaiçac garrayatcen tuste*: les abelles amassent leur provision

Axularren aipuan *garrayatcen* aditzak ez du «amasser» esanahia:

*Erleac* [...] *nola çaharrac cofauean barrera, etheco lanen eguiten, egoiten dira; eta gazteac, bere mantenuaren eta viciaiçen garraion*.

Alde batetik, itzulpen akats hauek, eta bestetik, gorago ikusi dugun *Iesusen Imitacionea*-ren gaztelaniatik itzulpen ariketak adieraz litzakete urrats ezberdinak Pouvreuren euskararen ezagutzan, eta ondorioz bere hiztegi gintzan ere.

## 5. Ondorioak

### 5.1. Iturriez

Iturrien azterketak metodologia berezia eskatu digu. Izan ere, lekukotasun corpusaren eraketa bi eragilek zaildua suertatzen da. Batetik, gaurko euskal literaturaren

corpusa —testu eta ediziori dagokienez— Pouvreauk ezagutu zuen edota ezagut zezakeenarekiko mugatua dagoelako, besteak beste, eta garrantzitsuenak aipatzeagatik galduta dauden Etxeberri Ziburukoaren hiztegia eta *Egunorozcoa* liburua, Argainaratzaren *Avisu eta Exortacionea* edo Haranbururen *Debocono escuarra*-ren bigarren edizioa erabili ahal izan zituen. Bestetik, gure azterketarako erabili ditugun lanabesak mugatuak direlako. Esate baterako eta idatzizko iturriei dagokienez, gure lanabesik nagusia izan den «Corpus Arakatzaillea»-n ez dira biltzen gure analisisian inplikatuak diren autoreen testu edota edizio ezagun guztiak.

Hortik, erreferentziadun edo balizko lekukotasunak egiaztatzerakoan agertzen den zailtasuna. Horregatik guztiagatik, soilik fidagarritasun-maila aipatuaz mintza daiteke.

Iturriak bi multzo nagusitan bildu ditugu: hiztegi-iturriena, eta testu-iturriena. Bata eta bestearen problematika desberdina izateagatik, beren azterketa banan-banan egin behar izan dugu.

### 5.1.1. Hiztegi iturriez

Hiztegi iturriei dagokienez, bi mota bereizi dugu lekukotasunen kopuruaren arabera:

#### A) Hiztegi iturri nagusiak

Ustekabean, Voltaire agertu zaigu hiztegi iturrietan nagusia ikusi dugunez (§ 3.2.2). Voltaire Pouvrearen iturria dela frogatzeko (cf. Etxagibel 2011) bi hiztegien arteko erkaketa zuzenaz gain, J. Lakarrak formulatutako egitura irizpidea erabili dugu (Ik. § 2.3.2). Izan ere, Voltaireren sarreraren artean beste batzuk tartekatuak izan arren, oro har, Pouvreauk Voltaireren hiztegi euskara-frantseseko ordenari eusten dio, esate baterako, hiztegiaren hasieran: *abadea* [x,x,..], *aberatsa*, *abrea*, [x,x,..], *absolvatcea*, *acabatcea*, etab. Ez hori bakarrik, Voltaireren hiztegi ordena berbera gordezten diren bizpahiru sarrerek osatutako hainbat hurrenkera aurkitzen dira Pouvrearen hiztegian, hala nola: *bessoa*, *besta eguna*; *carnaceria*, *çarpa*; *dohatsua*, *doblea*, *dohacabea*; *egoitea*, *egoitstea*, *egostea*, etab.

Zenbaitetan aurkitu ditugu, Voltaire ez ezik, beste autore batzuk ere izan litezkeen delako lekukotasun baten iturria. Horrelako kasuetan auzia askatzeko 2.3.2 atalean ikusitako irizpideak erabili ditugu:

— *Hiztegi elebidunaren lehentasuna*

Zenbait lekukotasun esleitu ahal izateko hala nola, *acusatcea*, *anayatasuna* Oudinen frantses-gaztelaniazko hiztegiaren aurretik lehenetsi dugu Voltaireren frantses-euskarazko hiztegia.

— *Hiztegi iturrien lehentasuna literatur iturrien aurretik*

Hainbatetan, delako lekukotasun bat aldi berean Voltaireren hiztegian eta literatur testu batean agertzen denean, Voltaireri esleitu diogu. Esate baterako, Leizarragarenak bide diren *chiquiratcea*, eta *quilicatcea*, edo Axularren *sapataguina*, eta *urdaya* Voltaireri egotzi dizkiogu.

— *Koherentzia*

Oihenarten *Oten Gastaroa Nevrthizetan* liburuaren amaierako euskara-frantsezko hiztegitxo elebiduna eta Voltoireren frantses-euskarazko hiztegia Pouvreuren iturriak izan ahal direnean, koherentziaz, iturri nagusia den Voltaire lehenetsi dugu, adibidez, *beruna*, eta *igueltsua*.

B) *Hiztegi iturri txikiagoak*

Multzo honetan bildu ditugu Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galdua, eta oraingoz bederen, Oudinen *Tresor...* delakoa, kontuan hartuz, oraindik ez dagoela argi Pouvreuren erabilera zenbatetarinokoa den (ikus Etxagibel 2011).

Horiez landa, Pouvreauk Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren amaierako *Çuberoaco Herrian Vsançatan...* izenburuko hitz bilduma, Oihenarten *Notitia...* eta gorago aipatutako *Oten Nevrthiz...* liburuetan agertzen diren «hiztegitxoak» usu erabili zituen.

5.1.2. *Testu iturriez*

Literatur iturrien ikerketan bi pausu eman behar izan dugu. Alde batetik, Pouvreuren erreferentziadun lekukotasun guztiak egiaztatzen saiatu gara, eta horretaz azpimarratu behar da —idazle bakoitzari eskainitako ataletan zehazten denez— identifikatzeko geratu direla Axularri egotzitako A. laburduradun 7 lekukotasun; bai eta Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galduari, eta, agian, *Egunorozco* liburuari legozkiekeen 53 lekukotasun; Haranbururen *Debocino escuarra*-ren Harizmendik moldatutako edizioari legozkiekeen 22, eta O. laburduradun 109 lekukotasun, ziurrenik Oihenartek Pouvreari bidalitako eta gaur egun desagertutako zerrenda zenbait legozkiekeenak.

Bestetik, erreferentziarik gabeko lekukotasun balizkoak biltzen saiatu gara. Gure kalkuluen arabera, hiztegian guztira 2200 bat pasatxo balizko literatur lekukotasun dira, hau da, lekukotasun guztien ~%60, eta bere fidagarritasun mailaren arabera bi multzo nagusitan banatu dugu:

Lehendabizikoan bildu ditugu literatur testuetatik ateratako aipu osoak, hau da, beren osotasun edota luzeraz identifikagarriak diren literatur testu pasarteak, hala Pouvreuren iturri ezagunekoak nola balizko iturri berriagoetarikoak. Gure analisieren aipatutako mugengatik beren egiazkotasun erabatekoa ezin izan arren, fidagarritasun mailarik handienetariko lekukotasunak (FHNL) direla balioets dezakegu. Esate baterako, *Kaillua* sarrerako «*Larrua caillutcen çaica, loditcen, gogortcen*» aipua Axularri legokioke: «*escuetaco larrua ere loditcen gogortcen, eta khaillutcen çaica*» (Ax. 90), edo *Alea* sarrerakoa «*Egotu naiz alleguia ni hilla*», Etxeberri legokioke: «*Gau guztian egotu naiz alleguia ni hilla*» (*Manual* II, 33).

Bigarrean, «aipu txikiak» izendapenez bildu ditugun zenbait lokuzio, izen, deklinabide kasu, hitz elkarketa, hitz eratorri, aditz, adberbio, etab., Pouvreauk literatur testuetatik atera ahal izan zitzakeenak. Adibidez: *Adisquidea* sarreran «*Adisquide mami bat*» Axularrena bide da: «*adisquide mami batequin beçala*» (Ax., 325), edo, *Arrain* sarreran «*Arrain iguelduria*» Etxeberrirena bide da: «*Vrean ere ezta içanen arrain iguelduriri*» (*Manual* I, 88).

Multzo hori eratzeko Pouvreuren joeran oinarritu gara, zeren mota hauetako aipu txiki erreferentziadun asko sartu baitzuen bere hiztegian. Multzo horren fidaga-

rritasun maila lehenengoarena baino txikiagoa da, batetik, eta aldakorra ere, bestetik, ez bakarrik edozein aipu txiki berez zailagoa delako identifikatzeko orduan, baizik eta egiletasuna zehazteko probabilitatea aldatzen delako azterketaren denbora tarteko autore batek edo batek baino gehiagok erabilia izan. Ondorioz, lau azpimultzo bereizi behar izan dugu:

«Lekukotasun bakarra»: azpimultzo honetan biltzen dira azterketaren denbora tarteko autore bakar batean diren lekukotasunak, geroztik, euskal literaturan zehar inoiz gehiago erabili ez direnak. Esate baterako, *Escadroina* sarrerako burua Etxeberriri legokioke: «*Escadroñac ordenantçaz, ordenantçaz pausua*» (*Manual I*, 84), edo *Harroina* sarreraren, «*Harroinean 6666 colpe*» soilik aurkitzen da Haranbururen *Debocino escuarraren* 1690eko edizioan: «*Harroinean açoiatu çuten Pilatus baithan; sei milla sei heun hirurogoi eta sei açote colpez cruelqui*» (*Debocino*, 369).

«Gainerako erabiltzaileak»: hemen biltzen dira azterketaren denbora tarteko autore bakar batez gain, geroztik euskal literaturan zehar autore gutxiak —lauzpabostek— erabili dituzten lekukotasunak. Azpimultzo honetan beste azpimultzo batzuk bereizi behar izan dira aintzakotzat hartuz gainerako erabiltzaile horiek zein izan diren: a) Pouvreau izan da gainerako erabiltzaile bakarra, b) Pouvreau eta 1666az geroztikoak, c) 1666az geroztikoak, eta d) azterketa denbora tarteko beste autore bat da gainerako erabiltzaileen artean. Adibidez, *Cofauea* terminoaren lehen lekukotasuna Axularrengan aurkitzen da: «*nola çaharrac cofauean barrena*» (Ax., 35), geroztik soilik Pouvreau eta Etxeberri Sarakoak erabili zuten. Halaber, *Charrantcha* lehen aldiz Etxeberri erabili zuen: «*Orrace, eta charrantchac baita orratz meheac*» (*Manual I*, 103), ondoren Arxu eta Duvoisinek baliatu zuten.

«Erabiltzaile bakarra»: azpimultzo honetakoak dira azterketaren denbora tartean erabiltzaile bakarra izan duten lekukotasunak. Adibidez, *Doillorra* sarrerako *Doillorqueria* azpisarrerako Axularrengan soilik aurkitzen da: «*eta ahalquea [...] doillorqueriaz preçatcea*» (Ax., 96), edo *Bandera* sarrerako *Banderaria* Etxeberriren *Manual*-ean soilik aurki daiteke: «*Eta hain ordena deuot baten banderaria*» (*Manual II*, 31).

«Ondorengo erabiltzaileak»: azpimultzo honetan sartzen dira kronologikoki azterketaren denbora tartean lehendabiziko autore batez gain beste erabiltzaile batzuk izan dituzten lekukotasunak. Esate baterako, *Billuzgorria* sarrerako *Billuzgorritasuna* Leizarragarengan aurkitzen da: «*aggueri eztençat hire billuzgorritassunaren laidoa*» (*Apo III*, 18), eta ondoren, Materrek erabili zuen. Halaber, *Urruna* sarrerako *Urrundanic* Leizarragak erabili zuen: «*Eta Pierris iarreiquiten çayon vrrundanic*» (*Mat. XXVI*, 58), eta geroztik Etxeberri Ziburukoa eta Oihenarten idazlanetan agertzen da.

Hiru fidagarritasun maila bereiz daitezke «aipu txikiak» multzoaren azpimultzo hauetan gutztietan:

Fidagarritasun maila handikoak (FHL):

«Lekukotasun bakarra» azpimultzokoak.

«Gainerako erabiltzaileak» ondoko azpimultzokoak: a) Pouvreau gainerako erabiltzaile bakar gisa agertzen denean, b) Pouvreau eta 1666az geroztikoak, c) 1666az geroztikoak. Esate baterako, *Bada eta ezpada* lokuzioa Axularrez gain (Ax. 197), Pouvreau agertzen da gainerako erabiltzaile bakar gisa. Berriz, *Arboladia* Etxeberri Ziburukoaz landa (*Manual I*, 80) Erkiaga, Arana, eta Antiak erabili dute.

Fidagarritasun maila ertainekoak (FEL):

«Erabiltzaile bakarra» azpimultzokoak. Adibidez, *Iaurgoa* azterketa denbora tartean soilik Leizarragak (*Othoitz*, 1288) erabili zuen.

Fidagarritasun maila apalekoak (FAL):

«Gainerako erabiltzaileak» azpimultzokoak lehendabiziko autoreaz gain azterketaren denbora tarteko beste autore batzuk aurkitzen direnean gainerako erabiltzaileen artean. Esate baterako, *Egundainoticacoa* Etxeberri Ziburukoaz gain (*Manual* II, 14) Argainaratzek eta Duvoisinek erabili zuten.

«Ondorengo erabiltzaileak» azpimultzoko lekukotasun guztiak. Adibidez, *Aihercundea* Leizarragaz gain (*Regueri*, 1356) Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, eta Axularrek baliatu zuten.

Banaketa hauek agerian uzten dute delako lekukotasun bat iturri anitzetan izan ahal izateak dakarren arazoa. Horrelakoetan, eta lekukotasunen corpora antolatzeke, delako lekukotasun hori kronologikoki lehenbiziko iturria denaren taulan jarri dugu, aipatuz ondorengo erabiltzaileak. Adibidez, *Çure favorearequin batean*, Materren taulan agertzen da, eta aldi berean aipatzen dira lekukotasun honen ondorengo iturriak: Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, eta Axular.

Haatik, zenbait irizpide proposatu dugu iturri anitzen arteko bati nolabaiteko ziurtasunez esleitzeko delako lekukotasun hori:

— *Iturriekiko koherentzia*

Pouvreauk sarrerak bere iturrien lekukotasunen sortez betetzeko zuen jaiduran oinarritzen da, hau da, lekukotasunak autorez autore biltzen zituela irakurketaren hurrenkeraren arabera. Esate baterako, *Berretcea* sarreran agertzen dira «*Berretura A*», «*Berrexapena H*», «*Berretçapena O*» eta FHL-ak diren *Berretçaillea* (Etxeberri Z.) eta *Berretasuna* (Argainaratz). Berriz, *Çucia*, *Haroa* sarrera Etxeberriren lekukotasunez bete zuen. Izan ere, *Fedearen çucia* (*Noelac*), *Leinhurutsu çucia* (*Manual*) eta *Haroa* (*Eliçara*), FHL-ak dira.

Irizpide hau eraginkorra bide da hainbat lekukotasun esleitzerakoan. Adibidez, *Aldea* sarrera Axular eta Haranbururenak bide diren erreferentziarik gabeko lokuzioz osatua da: Axularrenak: *Aitcin aldea* (FHL); *Aldez damu, aldez atseguin* (FHL); *Alde çaquitça* (FHL); *Etsaiari alderatcea* (FHL); eta *Alde guztiz complitua* (FAL). Haranbururenak: *aldez edo moldez* (FAL). Haranbururen ondoren, kronologikoki, Axularrek erabili zuen. Kontuan hartuz, zazpi lokuzio Axularrenak direla, eta gainerakoa Haranburuz gain Axularrek erabili zuela, errazena eta logikoena guztiak Axularri esleitzea izango litzateke.

— *Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren irizpidea*

Askotan, Pouvreauk literatur testu batetik pasarte bereko edo testuan hurbil diren erreferentziadun lekukotasunak jasotzeko zuen joeran oinarritzen gara, eta erreferentziarik gabeko balizko lekukotasunen iturrien identifikaziorako extrapolatu egin dugu. Adibidez, Pouvreauk *Errementa* sarrerako *Errementaldeguia*, eta *Harotza* sarreran *Harotzaren suteguia* Axularrengandik hartu zituen: «*Erremental deguian, harotzaren suteguian*» (Ax. 325, 10.l.). Halaber, *Edalea* sarrerako *Edateco* eta *Kurtea* sarrerako *Edateco kurca guztietan*, «*Bertce hegaztinac edateco curca guztietan*» pasarteari legezkiok (Ax. 342, 12.l.).

Irizpide hau aurrekoaren kasu berezitat har daiteke eta bere eraginkortasuna frogatuta suertatu bide da zenbait kasutan. Esate baterako, *Naguitasuna* (FAL) Mate-

rez gain Etxeberrik, Haranburuk eta Axularrek erabili zuten; *Naguiqui* (FHL) Axularrez gain Duhaldek eta Duvoisinek erabilia izan da. Gertatzen dena da, Axularren ondoko aipuan biak batera agertzen direla: *Hasuiñac significatcen du naguitasun, baldin malguqui, leunqui, emequi, naguiqui eta balacuz beçala hazcatcen* (Ax. 41). Hortik, errazena izango litzateke bi eratorriak Axularrengandik etortzea.

— *Erraztasun maila iturrien testuen erabileran*

Pouvreau euskaldunberri zelarik, erraztasunez, hiztegia prestatzen hasi zenean eskura ahal izan zituen euskal testuen artean berarentzat ulerterrazena zirenak lehenetsi bide zituen, hots, itzulpenak. Ikuspuntu horretatik Leizarragaren *Testamentu Berria*, Beriainen testuan, Oihenarten *Les Proverbes basques* eta Harizmendiren *Officioac* izango lirateke erraztasun maila gorena zutenak. Haranbururen, Axularren, eta Tartasen testuak bigarren maila batean kokatu beharko lirateke zenbait latinezko aipu edo atal dituztelako, etab.

Irizpide hori erabilgarria izan daiteke zenbaitetan lekukotasunak esleitzerakoan. Adibidez, «*Espata magina. fourreau d'épée*» aipua Leizarragak (*Io*, XVIII, 11) eta Axularrek erabili zuten (Ax. 540, 570). Axularren lekukotasunak diren pasarteak ez dira latinezko aipuen itzulpenak, berriz, Leizarragaren kasuan: *Erran cieçon bada Iesussec Pierrisi, Eçarrac cure ezpatá maguinán* (*Testamentu Berria*); «Jesus donc dit à Pierre, Remets ton épée au fourreau» (*Bible de Geneve*); «Dixit ergo Jesus Petro: Mitte gladium tuum in vaginam» (*Vulgata*). Ondorioz, arrazoizkoa da Leizarragari esleitzea.

— *Lekukotasunen erabileraren maiztasuna*

Zenbaitetan baliagarria izan daiteke. Hala ere, bere eraginkortasuna aldakorra gertatu denez, soilik aurreneko hiru irizpideen osagarritzat hartu dugu. Esate baterako, *Sacramendua, sagaramendua* sarreran, Materrek berrogeitabat aldiz erabili zuen *Sagamendua*, berriz, termino honen gainerako erabiltzaile bakarra izan den Axularrengan aldi batez aurkitzen da. Horrenbestez, Pouvreauren iturria izateko probabilitate gehien duena Materre da.

Irizpide horiez gain, autoreen grafia edota *usus scribendi* delakoa baliagarriak dira, puntualki bada ere, kontuan hartuz, Pouvreauren grafiak, oro har, ez zaizkiela jatorrizkoei egokitzen. Esate baterako, *Lana* sarrerako *Lanhabeça* azpisarrerara esleitzeke aurkitzen dugu Etxeberrik *Lanabesa*, eta Axularrek *Lanhabeça* idatzi zutela. Beraz, ematen du Axular izan zela Pouvreauren iturria.

Horrela jokatzuz, 3700 literatur lekukotasun inguru lukeen corpus bat eratu dugu. (ik. § 3.2.1, § 4.3.) Horietatik %40 dira erreferentziadunak, eta %60 dira erreferentzia gabeko balizko lekukotasunak. Azken hauen artean ere asko eta asko Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Harizmendi eta Oihenarti legezkieke. Ez hori bakarrik, Etxepare, Materre, Beriain, Haranburu, eta Argainaratzek bide diren franko ere azaleratu ditugu.

Corpus horretatik kanpo utzi ditugu identifikatzeke geratu zaizkigun erlijio kutsuko 91 aipu eta 61 errefrau.

Iturriko lekukotasunen kopuruaren arabera, bi iturri mota bereiz dezakegu: iturri nagusietakoa, eta iturri txikiagoetakoa. Lehendabizikoen artean aurkitzen dira Axular %24z, Leizarraga %22z eta Etxeberri Ziburukoa %21ez, eta Oihenart %20z. Bigarren taldean Haranburu %5ez, Materre %4z, Etxepare %1ez, eta %1 baino gutxiagoz Harizmendi, Tartas, Beriain, eta Argainaratz.

Iturriak banan-banan aztertuz, erreferentziadun lekukotasun eta erreferentziarik gabekoen arteko banaketari buruz, Pouvreauk erabilitako edizioei buruz, eta beste zenbait gauzari buruz hainbat datu interesgarri azaleratu ditugu (Etxagibel 2010) eta orain prestatzen ari naizen lanetan zabalduko ditugu.

### 5.1.3. Hiztegi gintzaz

Hiztegi gintzaren arloan Pouvreauren soslai biltzailea nabarmendu dugu. Izan ere, batez beste, sarreraren ~%92k literatur lekukotasunen bat dute, nahiz erreferentziaduna, nahiz erreferentziarik gabekoa.

Pouvreauren bilketan hiru ezaugarri nabarmentzen dira: lekukotasunak egiaztatzea zailtzen duen parafasiaren erabilera, gramatika jokabide bereziak iturrien lekukotasunak hiztegiaren islatzerakoan eta iturrien jatorrizko grafien aldaketa. Horietaz gain, tartean behin bada ere, halako garbizaletasunerako joera.

Dagoeneko frogatua zen Pouvreauren joera sortzailearen erakusgarri, euskal literaturaren historian berak bakarrik erabilitakoak eta horrexegatik, —gure lanabesen mugak ahaztu gabe— ziurrenik, berak sortutako 250 bat aipu txiki bildu ditugu.

Pouvreauren euskararen ezagutzari buruz zalantzak sortzen dituzten itzulpen akatsek hainbat urrats ezberdin adieraz litzakete bere euskararen ezagutzan, eta ondorioz, bere hiztegi gintzan ere.

Laburbilduz, modu orokorrean esan daiteke lan honen bitartez Pouvreauren iturrien eta hiztegi gintzaren ezagutzan urrats bat aurreratu dugula. Ekarpenean artean nabarmentzekoak dira Pouvreauk bere hiztegiaren egituraketan egin duen Voltoireren hiztegiaren erabilera (cf. Etxagibel 2010 eta 2011), literatur lekukotasun guztien %60a diren erreferentzia gabeko lekukotasunen agerpena, eta, Etxepare, Beriain, Materre, Haranburu, Argainaratz, eta Tartas azaleratzea balizko iturri gisa (cf. Etxagibel 2010 eta prestatzen ari naizen zenbait lan).

Nolanahi ere, ekarpenekin batera galdera berriak ere azaltzen dira, esate baterako, zergatik jaso zituen Pouvreauk hainbeste literatur lekukotasun iturri aipamenik gabe, edo, zergatik utzi zituen isilpean Materre eta Haranburu —biak frantziskotarrak, hain zuzen—.

Berriz, ikerketa lanean zehar agertu diren zenbait puntu argitu gabe, edota bukatzeke geratu dira. Izan ere, Pouvreauren grafia aldaketak ikerketa sakon baterako gai ditugu. Halaber, literatur lekukotasunak identifikatzeko proposatutako irizpide berrien eraginkortasunaren helmena aztertu behar da. Horiez bestalde, xvi. eta xvii. mendeetako errefraue bildumetan aurkitu ez ditugun errefrauen paremiologia iturri ezezagunek eta Oudinen hiztegiaren erabileraren hedadurak ikerketa zorrotzak eskatzen dituzte.

Beraz, hiztegi eta literatur iturrien ezagutzan zerbait aurreratu badugu ere esan daiteke oraindik lan asko egin beharko dela iturrien auzia askatzeko, ahaztu gabe, halaber, ahozkoak izan litezkeen lekukotasunen arloa jorratu gabe dela oraingoz.

## 6. Bibliografia

Altuna, P., 1981, *Manual Devotionezcoa (Lehen zatia): Edizio kritikoa*. Euskaltzaindia, Ediciones Mensajero, Bilbo.

- Argainaratz, 1665, *Devoten Breviarioa*, Bosc, Baiona. J. Vinsonek argit. 1910, [on-line] Klasikoen gordailua <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/ArgainaratzDeboten.htm>>
- Aulestia, G. (arg.), 1996, *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, Gasteiz. Antso Jakituna Fundazioa.
- Axular, P., 1643, *Gvero bi partetan partitua eta berecia*, Bordele, G. Milanges. Berrarg. faksim. Euskaltzaindia, Bilbo, 1988.
- Azkue, R. M.<sup>a</sup>, 1906, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo-Paris. Bigarren arg. faksim. LGEV, Bilbo, 1969.
- Beryain, J., 1621, *Tratado de como se ha de oyr missa escrito en romance y bascuence*. Labayen, Iruña. Berrarg. faksim., Hordago, Donostia, 1980 [on-line] Klasikoen gordailua <<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/BeriainMeza.pdf>>
- , 1626, *Doctrina Cristiana escrita en Romance y Bascuence*, Labayen, Iruña.
- Bilbao, G., 1992, «Pouvreuren hiztegi laukoitza», *ASJU* XXVI-2, 341-389.
- Daranatz, J. B., 1910, «Sylvain Pouvreau valet de l'abbé de Saint Cyran, protégé de Saint Vincent de Paul», *RIEV* IV, 206-216.
- , 1912, «Silvain Pouvreau en villégiature a Bidart», *RIEV* VI, 200.
- Detxepare, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordeaux, F. Morpain. Berrarg. faksim. Orain, Donostia, 1995.
- Dubarat, V., 1908, «Sylvain Pouvreau curé de Bidart», *RIEV* II, 104-110.
- , 1914-1917, «Le Dictionnaire Basque et Les Rudiments du P. Dominique Bidégaray, Franciscain du Couvent de Pau», *RIEV* VIII.
- & Daranatz, J. B., 1929, «Sylvain Pouvreau prêtre de Bourges, écrivain basque, curé de Bidart de 1640-1644», *RIEV* XX, 96-101.
- Etcheberri I., *Manual Devotionezcoa edo ezperen oren oro escuetan erabiltceco liburutchoa*, 1627, Milanges, Bordele. Berrarg. 1669, Mongiron, Bordele. [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebZibuManual.htm>>
- , -1630, *Noelac eta bertce canta espiritual berriac*, Milanges, Bordele. Berrarg. 1697, Maffre, Baiona. [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebZibNoelak.htm>>
- , 1636, *Eliçara erabiltceco liburua*, Milanges, Bordele. Berrarg. 1665, Mongiron, Bordele [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebZibElizara.htm>>
- Ettxagibel, J., 2010, «Silvain Pouvreuren hiztegiaren iturriak eta testukritikaren metodologia», UPV/EHU-ko DEA-ko lan argitaragabea.
- , 2011, «Voltaire Pouvreuren hiztegiaren». *ASJU*-n argitatzeko lana.
- Elzevier argitar., 1669, *Bible de Geneve*, [on-line] <<http://www.biblegeneve.com/>>
- Godeffroy, 1982, *Dictionnaire de l'ancienne langue française du IX au XV siecle*, Slaktine, Geneve- Paris.
- Granada de, Fr. Luis, 1536, «*De Imitatione Christi*». Berrarg. in *El menosprecio del mundo e Imitación de Cristo obra compuesta en latín por el V. Tomás de Kempis traducida al castellano por el V.P.M. Fray Luis de Granada*, Madrid, Oficina Tipográfica del Hospicio, 1871.
- Haranburu, I., 1635, *Debocino escuarra*, De La Court, Bordele. [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HaranburuDebozino001.htm>>
- , Haranburu /Harizmendi, -1660, *Debocino escuarra*. Berrarg. 1690 (Lazkaoko Beneditarren liburutegian gordetzen den edizioako faksimilaren kopia).



- Harizmendi, C., 1660, *Ama Virginaren Officia*. Vinsonek argitar., 1901. Berrarg. faksimil. Hordago, Donostia, 1978.
- Kerejeta, M. J., 1991, «Oihenart Silvain Pouvrearen hiztegi», *ASJU* XXV-3, 865-899.
- , 2003, *S. Pouvrearen Hiztegiaren edizioa* (argitaratu gabe).
- Kortazar, J., 1996, «Arnault Oihenart (1592-1667)». In Aulestia (arg.), 211-231.
- Lafitte, P., 1967, «L'art poetique basque d'Arnaud d'Oyhenart (1665), avec une introduction de Pierre Laffite», *Gure Herria*.
- Lafon, R., 1955 «Notes pour une edition critique et une traduction française des poesies d'Oihenart», *BAP* XI, 135-173.
- Lakarra, J. A., 1994, «Harrieten Gramatikako hiztegiak», *ASJU* XXVIII-I, 1-178.
- , 1995, «Pouvrearen hiztegiez eta hiztegi-intzaren historiaz», *ASJU* XXIX, I, 1-52.
- , 1996a, «Refranos antiguos vascos anteriores a Oihenart». In Aulestia (arg.), 141-175.
- , 1996b, *Refranes y Sentencias: Ikerketak eta Edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1997, «Hizkuntz eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interprète ou traduction du français, espagnol & basque* (~ 1620)», *ASJU* XXXI, I, 1-66.
- , 1999, «*L'interprète ou traduction du français, espagnol & basque* (~ 1620): II. Elkarrizketak», *ASJU* XXIII, 2, 493-568.
- Leizarraga, I., 1571, *IesVs Christ Gvre Iaunaren testamentv Berria*, Rochela, P. Hautin, 1900ean Strassburg-en Linschmann-Schuchardten argitalpen ia faksimilaren berrarg. Euskaltzaindia, 1990, Bilbo.
- Materre, E., 1617, *Dotrina Christiana*, De La Court, Bordele. Berrarg. 1623, Milanges, Bordele [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/MI/MaterreDotrina.htm>.>
- Mitxelena, K., 1960, *Historia de la literatura vasca*, Madril, Minotauro. 2. argit. Donostia, Erein, 2001.
- , 1961, «Euskal iztegi-gilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan», *Euskera* 6, 7-22.
- , 1964, *Textos arcaicos vascos*, 2. arg. *ASJU*-ren Gehigarriak 111, Donostia, 1990.
- , 1987, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia [OEH]*, Desclée De Brouwer-Mensajero, Bilbo. [on-line] *Euskaltzaindia* <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>>
- Oihenart, A., 1638, *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae*, S. Cramoisy, Paris. Berrarg. 1656 argit, faksim., Gorosterratzuren itzulpena eta R. Ciervideren sarrera, Gasteiz, Eusko Legebiltzarra, 1992.
- , 1657, *Les proverbes basques recueillis par le sr. d'Oihenart plus les poésies basques de mesme auteur*, Paris. Berrarg. faksim. Tolosa, Lopez Mendizabal, 1936.
- , 1847, *Proverbes basques recueillis par Arnaud Oihenart suivis des poésies basques du même auteur. Second édition*. Francisque Michele-en hitz. osatua, Bordeaux, P. Faye.
- Orpustan, J. B., 1993, *Oihenarten hiztegia*, Baigorri, Izpegi.
- Oudin, C., 1607, *Le Tresor des deux langues, espagnolle et française*, Sommeville. Paris. Berrarg. 1645, Berrarg. elektronikoa Biblioteca Universitat de Barcelona [cd-rom].
- 1659, *Refranes o proverbios españoles traducidos en lengua francesa = proverbes espagnols traduits en français*. Paris. Berrarg. elektronikoa Biblioteca Universitat de Barcelona [cd-rom]
- Oyharçabal, B., 1989, «Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *ASJU* XXIII, 59-73.
- Pouvreau, S., 1656, *Guiristinoaren Dotrina*. Roger, Paris. [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/P/PouvreauGuiristinoa.htm>.>
- , 1648-1659, *Les Petites oeuvres basques de Silvain Pouvreau*, Vinsonek argitar., 1892. Berrarg. faksimil. Hordago, Donostia, 1979.

- , 1664, *Philotea*, Audinet, Paris. *Klasikoen gordailua* [on-line]. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/P/PouvreauFilotea.htm>>
- , 1665, *Gvdu Espirituala*, Audinet, Paris. *Klasikoen gordailua* [on-line]. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/P/PouvreauGudu045.htm>>
- , -1669, *Iesusen Imitacionea*, Vinsonek argitar. Berrarg. faksimil. Hordago, Donostia, 1979.
- Sáez Rivera, D., 2008, *La lengua de las gramáticas y métodos del español como lengua extranjera en Europa (1640-1720)*. [on-line]. <<http://eprints.ucm.es/7813/>>
- Salaberri, P., 2002, *Iraupena eta lekukotasuna, euskal literatura idatzia 1900 arte*, Donostia, Elkar.
- & Susa argit., 2005 «Klasikoen Gordailua» [on-line]. <<http://klasikoak.armiarma.com/klasikoak/corpus.htm>>
- Tartas, J., 1666, *Onsa hilceco bidia*, Rouyer, Orthez [on-line] *Klasikoen gordailua* <<http://klasikoak.armiarma.com/faksimilean/17/TartasOnza.pdf>>
- Urgell, B., 2008, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren Eranskina: Saio bat hiztegi gintzaren testu kritikaz*. Inprimategian.
- Urkizu, P., 1994, «Oihenarten atsotitzak eta poetikaren berrirakurketa». In *Iker* 8, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Urquijo, J. de, 1909, «Las citas del diccionario de Pouvreau», *RIEV* III, 504-519.
- Van Ess argitar., 1822, *Biblia Sacra, Vulgatae Editionis Sixti V et Clementis VIII* [on-line]. <<http://www/sacredbible.org/vulgate1822/index.htm>>
- Vinson, J., 1891-1897, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Maisonneuve, Paris.
- Berrarg. faksim. J. Urquijo oharrekin (*ASJU*ren Gehigarriak, 9), Donostia, 1984.
- , 1909, «Les citations du vocabulaire basque-français de S. Pouvreau», *RLPhC*, 161-163.
- , 1910, «Le vocabulaire de Pouvreau», *RIEV* 4, 139-141.
- , 1912, «Sur les deux prétendues éditions du Nouveau Testament basque de Liçarrague», *RLPhC*, 15-20.
- Voltoire, 1642, *Tresora hirour lengvaietaqua, francesca, espagnola eta hesquvara*, Bourdot, Baiona, Berrarg. elektronikoa Euskaltzaindia [cd-rom].